



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abenduaren 23an

116 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Batzordeak zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2000ko azaroaren 22ko 102 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 2, 3, 4, 5, 7, 9, 14, 22, 33, 34, 35 eta 46 zenbakiko zuzenketak, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko zuzenketa hauek: 1 zenbakiko "in voce", 11, 19, "in voce" 8, 23, 27, 29, 30 eta 31.

– 8, 12, 13, 21, 24 eta 28 zenbakiko zuzenketak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 16, 20 eta 25 zenbakiko zuzenketak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Aipatutako zuzenketak 2000ko abenduaren 16ko 112 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

1 zenbakiko "In voce" zuzenketaren testua hauxe da:

14. artikulua 2. idatz-zatiko 3. puntuari dagokion 1.5 artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

"Prestazio horiek direla-eta 59.2 artikulua araberako batez besteko tasako tributua ordaindu beharko da"

Zioak: Gizarte Segurantzako eta pentsio planetako pentsioarengatik ordainketa orekatzea, ez dadin horren karga handia izan bizitza aktiboa bitartean.

8 zenbakiko "In voce" zuzenketaren testua hauxe da:

59. artikulua 1. idatz-zatiari dagokion 1. artikuluari 16.bis idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

1- zerga oinarriari ondoko tasen araberako karga ezarriko zaio:

1.500.000 pezeta bitarte	% 15
1.500.001 eta 3.000.000 pezeta bitarte	% 20
3.000.001 eta 4.500.000 pezeta bitarte	% 25
4.500.001 eta 6.000.000 pezeta bitarte	% 30
6.000.001 eta 7.500.000 pezeta bitarte	% 35
7.500.001 eta 9.000.000 pezeta bitarte	% 40
9.000.001 baino gehiago	% 47

Zioak: Tarifaren tarteak progresiboagoak eta zuzenagoak izatea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Zenbait zerga eta beste tributu-neurri batzuk hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua

Foru lege honetan, arrazoi desberdinak direla eta, tributu arloko aldaketa batzuk ezartzen dira. Ezaugarri eta irispide desberdinak badituzte ere, neurri hauen helburu nagusia da enpresei laguntza ematea eta aurrezpena eta inbertsioa bultzatzea, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa egonkorra eta inflazioa txikia izan daitezen.

Lege honen bidez hainbat aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan, Kooperatiben Zerga-araubidean, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan, Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean eta Nafarroako Nekazaritza Ustiatgeien Erregistroan.

1. artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen alderdi batzuk aldatzen ditu; aldaketa garrantzitsuenak dira, alde batetik, pentsio planei egiten zaizkien ekarpenen mugei dagozkienak, handitu egin baitira, eta bestetik, zerga oinarriaren eta likidazio oinarriaren muga pertsonal eta familiarrak sartu eta zabaltzea ere. Horrek guztiak aldaketa handia ekarri dio zergaren egiturari.

Zehazki, 55.1 artikulua 6. puntua aldatu da, eta aldaketa horren ondorioz, mutualitate, pentsio plan eta sistema alternatiboei egindako ekarpenengatik egin daitezkeen murrizketen muga gehieneko bateratua finkatzeko, ondoren aipatzen diren kopuruetatiko txikiena hartuko da:

– Lanaren eta enpresa edo lanbide jardueren etekin garbier baturaren 100eko 25, 52 urtez goitikoentzat izan ezik, horiek 100eko 40ko muga izanen baitute.

– 1.200.000 pezeta, gehi 100.000 pezeta gehiago partaidearen adinak 52 urtetik goiti egiten duen urte bakoitzeko. Hirurogeita bost urte edo gehiago dituztenek 2.500.000 pezetako muga izanen dute.

Bestalde, beste puntu bat (7.a) gehitu zaio 55.1 artikuluari, eta haren bidez baimena eman zaie subjektu pasiboari zerga oinarri orokorrean bere ezkontidearen pentsio planei eta mutualitatei egindako ekarpenak murrizteko, baldin eta ezkontidearen lanaren eta jarduera ekonomikoaren urteko etekin garbiak 1.400.000 pezetara ailegatzeko ez badira. Urteko gehieneko muga 300.000 pezeta izanen da.

Gainera, 55. artikulua 3 eta 4. idatz-zatiak aldatu eta 5 eta 6. idatz-zatiak erantsi dira, zerga oinarri gutxiengo pertsonal eta familiarren murrizketa sartzeko. Gutxiengo pertsonala 561.000 pezetakoa izanen da urte eta subjektu pasibo bakoitzeko. Zenbateko hori 650.000 pezetakoa izanen da subjektu pasibo hirurogeita bost urtetik goitiko bada, eta 850.000 pezetakoa 100eko 33 edo gradu handiagoko ezgaitasuna duenean.

Gutxiengo familiarra, subjektu pasiboarekin bizi eta lanbide arteko gutxiengo soldataz goitiko errentarik (salbuetsiak barne) jasotzen ez duen hirurogeita bost urtez goitiko aurreko ahaide bakoitzeko, 100.000 pezeta izanen da. Subjektu pasiboarekin bizi eta lanbide arteko gutxiengo soldataz goitiko errentarik (salbuetsiak barne) jasotzen ez duen hogeita bost urtez beheitiko lehenbiziko hiru ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, gutxiengo familiarra 250.000 pezeta izanen da urtean. Laugarren eta ondoko ahaide bakoitzeko, 400.000 pezetakoa urtean. 100eko 33 edo gradu handiagoko ezgaitasuna dagoenean, aurreko kopuruei 300.000 pezeta gehituko zaizkie urtean.

Subjektu pasiboak 300.000 pezetako murrizketa izateko eskubidea izanen du lagundutako pertsonatzat hartzen den hirurogeita bost urte edo gehiagoko ahaide bakoitzeko. Ahaidea egoera horretan dagoen ala ez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak ezarritako irizpide eta baremoei jarraikiz erabakiko da.

Zerga oinarriaren eta oinarri likidagarriaren atzemanen da familiak gaitasun ekonomikoan sortutako galera. Nafarroako araudian gutxiengo pertsonal eta familiarrak sartu badira ez da onura fiskal bat ezarri nahi delako, gaitasun ekonomikoa gutxitu dela ikusi delako baizik, betebeharrak pertsonal eta familiarrei aurre egin behar diren ondorioz.

60. artikulua ere aldatu da, eta ondorioz, oinarri likidagarri bereziaren karta-tasa 100eko 18 da.

Epe luzerako aurrezkiaren sustapenari buruz, azpimarratu behar da aseguruaren kontratuetatik kapital gisa jasotako etekinen murrizketa 100eko 60tik 65era igo dela, bost urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primen kasuan. Zortzi urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primak baldin badira, murrizketa 100eko 70etik 75era igo da. Baliaezintasunagatik kapital gisa jasotako prestazioen kasuan ere igo da murrizketa, 100eko 65era igo ere. Azkenik, aseguruaren kontratuen kasuan, lehenbiziko prima ordaindu zenetik hamabi urte baino gehiago igaro badira, 100eko 75era igo da murrizketa, ezartzen diren arauari jarraikiz.

2. artikuluan Ondareari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen ondoko bi alderdi hauek aldatu dira: ohiko etxebizitzaren tratamendua eta ondasun edo eskubide salbuetsiak eskuartzean hartutako zorren kenkaririk eza.

Hortaz, subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsirik gelditu da 25.000.000 pezetako balio fiskala arte, eta

ondasun edo eskubide salbuetsiak eskuratzean hartutako zorreatatik ez da kenkaririk eginen.

3. artikuluan Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatu da.

Zerga oinarrian atzerrian finkagune iraunkor baten bidez jasotako errenta batzuen salbuespena egiteko metodoa ezarri da. Beraz, utzi egin da kuotako murrizketa eta zerga oinarrikoa hartu. Dena den, aldaketa horrekin batera neurri batzuk hartu dira abusuari bidea mozteko.

Espanian egoitza ez duten erakundeen funtsen balore adierazgarrien eskualdaketatik ateratako atzerriko dibidendo eta errenten nazioarteko zergapetze ekonomiko bikoitzaren tratamenduari dagokionez, utzi egin da kasu jakin batzuetan kuotako kenkariaren kuota eta zerga oinarriko salbuespenarena hartu, horrela hobetuko baita Nafarroako enpresek nazioarteko merkatuan duten lehiakortasuna.

Bestalde, nabarmentzekoak dira teknologia berriak erabiltzen hasteko laguntzak eta kutsadura gutxitzen laguntzeko neurriak.

Ildo horretan, pizgarri fiskal bat ezarri da interneten agertzeko bidea hobetzeko, saleroste elektronikoa handitzeko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera zabaltzeko xedea duten inbertsio eta gastuetarako. Pizgarria ezarriko da baita nabigatzeko eta ibilgailuak satelite bidez aurkitzeko sistemetan inbertitzeko ere, errepedeko garraiorako ibilgailu industrial edo komertzialetan paratzen badira.

Errepideko garraioko ibilgailu industrial edo komertzialak erosteko pizgarriak ere ezarri dira, kutsadura atmosferikoa gutxitzeko xedea duen inbertsioaren zatiari dagokionean.

4. artikuluan Kooperatiben Araubide Fiskala arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen zenbait alderdi aldatu dira. Aldaketa horiek direla medio, nekazaritzako kooperatibek zilegi izanen dute bazkide ez diren hirugarrenei B gasolioa saltzea, babes berezikoak izateari utzi gabe; aldaketaren beste ondorio bat katastroko balioen mugak handitzea da, kooperatiba bat babes berezikitzat hartzeko aukerak handitzeko.

5. artikuluan aldaketa batzuk egiten zaizkio Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateginari. Horien artean, aipatzekoak dira, alde batetik, salbuespenaren aplikazioa hipotekak kitzeko eskrituren lehenbiziko kopietara zabaltzea, eta, bestetik, etxebizitzaren eskualdaketari ehuneko bosteko tributua ezartzea baldintza batzuk betez

gero, adibidez, etxebizitza eroslearen ohiko bizilekua izatea eta eroslearen famili unitateak hiru kide baino gehiago izatea.

6. artikulua bi aldaketa ezartzen dizkio Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari, lau urteko preskripzio epeari egokitzeko.

7. artikuluan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alderdi batzuk aldatu dira, Estatuak aldatutako alderdiak, hain zuzen:

1. Aldatu da 1. sekzioko 854 multzoa, gidaririk gabeko ibilgailuen alojerari buruzkoa.

2. Sortu da 2. sekzioko 45 taldea, Geodesia eta Mapagintzako ingeniariari buruzkoa.

3. Aldatu da 2. sekzioko 71 taldea, aseguru aktuario, agente eta artekariari buruzkoa.

4. Aldatu da 2. sekzioko 762 multzoa, Informatikako doktore, lizentziatu eta ingeniariari buruzkoa.

8. artikuluan Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala erregulatzen duen martxoaren 10eko 3/1999 Foru Legeko 28. artikulua aldatu da. Aldaketaren ondorioz, ondasun higiezinaren notario tituluak formalizatzerakoan lurzatiaren zedula eramateko betebeharra ez betezea zerga arloko arau-hauste arintzat hartu eta harengatik 1.000 pezetatik 150.000 pezetara bitarteko isuna ezarriko da.

9. artikulua aldaketa batzuk ezarri dizkie Nafarroako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legearen artikuluei, lehentasunezko ustiategietako titularren eta nekazari gazteen mozkin fiskalak handitzeko.

Xedapen gehigarrietan ondoko alderdi hauek arautzen dira:

– Balore-maileguko eragiketa batzuek ez dute ondare aldaketarik sortuko, ez Sozietateen gaineko Zergan, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

– Monetaren balio-galeraren zuzenketa koefizienteak, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikulua aipatzen direnak, finkatu dira.

– 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, jaulkipen-primaren banaketatik edo ekarpenak itzultzeko kapital murrizketetatik heldu den etekinarengatik ez da konturako atxikipen edo ordainketarik eginen, bi kasu horietarako ezarri den tributazio berriarekin bat etorriz.

Xedapen iragankorrek arautzen dituzte, alde batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko

Legeko 60. bis eta 62. artikuluetan aipatutako nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkarien kasuak, 2001eko urtarrilaren 1etik hasitako zerga-aldien bukaeran egin gabe daudenak; bes-tetik, zuzenbide iragankorraren ezarpena, atzerriko baloreen edukitza-entitateak zerga araubide berrira egokitu beharraren ondorioz.

Azkenik, xedapen indargabetzailea, arauzko gaikuntza eta indarra hartzea arautzen dira.

1. artikulua. Testu berria eman zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko ondoren zehazten diren artikuluei:

Bat. 7. artikuluko e) letra.

“e) Pertsoneri eginiko kalteen ondoriozko erantzukizun zibilarren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onetsi den zenbatekoan.

Halaber, salbuetsirik egonen dira mota horretako kalteetarako istripu aseguruaren kontratuetatik heldu diren kalte-ordainak, non eta zerga oinarria murriztu duten primak edo Foru Lege honetako 35. artikuluko 1. araua aplikatzearen ondorioz gastu kengarritzat har daitezkeenak ez diren. Salbuespenaren muga izanen da zirkulazioko istripuetan pertsoneri egindako kalteak baloratzeko sistema jasandako kalteari aplikatuzetik ateratzen den kopurua; sistema hori lbigailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilar eta aseguruari buruzko Legearen eranskinean ageri da (Aseguru pribatuak antolatu eta gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 legean emandako testuren arabera).”

Bi 7. artikuluko n) letra.

“n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

1. Lan horiek egoitza Espainiako lurraldean ez duen enpresa edo atzerrian kokatutako finkagune iraunkor batentzat egitea.

2. Lanak egiten diren lurraldean honen berdina edo antzekoa den zerga bat aplikatzea eta arauetan paradisu fiskaltzat hartutako herrialdea ez izatea.

Salbuetsitako kopuruaren muga 10.000.000 pezetakoa izanen da urtean. Zenbateko hori erregelamendu bidez aldatu ahalko da.

Destinoa atzerrian duten zergadunei ez zaie salbuespen hau aplikatuko, Zerga honen Erregelamenduko 8.A)3.b) artikulua zergapetzetik kanpo uzten dituen soberakinen araubidearen barruan baldin badaude, edozein dela ere haien

zenbatekoa. Zergadunak zilegi izanen du salbuespen honen orde zoberakinen araubidea aukeratzeari.

Hiru. 7. artikuluko k) letra.

“k) Norberaren kargupeko seme edo alaba bakoitzarengatik jasotako prestazioak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko IX. kapituluaren araututakoak (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu hori), bai eta Administrazio Publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba minusbaliatu bakoitzarengatik ezarritako famili laguntza.”

Salbuetsirik egonen dira, halaber, ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan arauturiko prestazio ekonomikoak.

Lau. 7. artikuluko q) letra gehitzea.

“q) Lurperatze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak. Egindako gastuen zenbateko osoa izanen da muga.

Bost. 14. artikuluko 1. idatz-zatikiko e) letraren testu berria.

“e) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak, hala nola, pentsioak direla-eta, enpresarioek dituzten konpromisoei aurre egiteko ordaindutakoak, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan aurreikusitako moduan, zenbateko horiek prestazioak lotesten zaizkien pertsoneri egozten ahal zaizkienean. Zerga egozketa horrek betebeharrak izanera izanen du bizi aseguruaren primei dagokienez, prima horiek, berreskuratzeko eskubidea ematearen bidez edo beste edozein formularen bidez, aukera ematen badute prestazioa lotutako pertsonen alde aurretik eskura izateko, pentsio planen buruzko arauetan aurreikusitakoak ez bezalako kasuetan. Aldez aurretik eskura izateko bidea ematen duten kasu hauen barrenean ez dira sartuko eritasun larriaren edo iraupen luzeko langabezi egoeren kasuetarako berreskuratzeko eskubidea barne hartzen duten aseguruak, erregelamendu bidez ezarritako den moduan.”

Sei. 28. artikuluko 1. idatz-zatiari d) letra gehitzea.

“d) Akzio edo partaidetzen jaulkitze primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak gutxitu egiten du, deuseztatu arte, ukituriko akzio edo partaidetzen erosketaren balioa, eta gera litekeen soberakina zergapean egonen da higikorren kapitalaren etekin gisara.”

Zazpi. 31. artikuluko lerrokada bat gehitzea.

“Zergaduna hil dela eta, irabazteko asmoz eskualdatzen badira Foru Lege honetako 29. artikuluan aipatutako besteren kapitalak atzitu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, higikorren kapitalaren etekinik ez dagoela juzgatuko da.”

Zortzi. 32.2 artikuluko b) eta c) letrak.

“b) Bizi aseguruaren kontratuetatik kapital moduan jasotakoaz ondorioztatutako etekinak honela murriztuko dira:

– Jasotzen diren datatik bi urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 30.

– Jasotzen diren datatik bost urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 65.

– Jasotzen diren datatik zortzi urte baino gehiagoko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkienak, 100eko 75.

Azkeneko murrizketa horixe bera aplikatuko zaio bizi aseguruetatik kapital moduan jasotakoaren etekin osoari lehen prima ordaindu zenez geroztik hamabi urte baino gehiago igari direlarik, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute, betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

c) Baliaezintasun prestazioetatik ondorioztatutako etekinak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta mailetan, Foru Lege honetako 14.2.a) artikuluan ezarritako aseguru kontratuez bestelako onuradunek jasotzen dituztenean, 100eko 65 murriztuko dira. Baliaezintasun prestazioetatik ondorioztatutako etekinak izan eta aurreko baldintzak betetzen ez badira, 100eko 40 murriztuko dira.

Baliaezintasun prestazioak hamabi urte baino gehiagoko antzinatasunaz hitzarturiko aseguru kontratuen ondoriozkoak direnean, 100eko 75eko murrizketa aplikatuko da, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute, betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Bederatzi. 32.3.B.b).c') artikuluari beste lerrokada bat gehitzea.

“Nolanahi ere, aktiboen multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da, baldin eta Europako Batasuneko baloreen bigarren mailako merkatu ofizial batzuen adierazgarria den burtsa edo errentako indize jakin bat errepikatzen duen inbertsio politika bat garatzen saiatzen badira.”

Hamar. 39.4.a) artikulua testu berria.

“Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko ohiko balioak gutxitu egiten du ukitutako balore edo partaide-tzen erosketa balioa, aurreko zenbakiko erregelekin bat, deuseztatu arte. Soberakinik baldin bada, Zergan ordainduko da higikorren kapitalaren gehikuntza gisa, Foru Lege honetako 28. artikuluan jaulkipen prima banatzeko ezarritako moduan.”

Hamaika. 39.4.c).a'),b') eta c') artikulua testu berria.

a') Eskualdaketa lerro zuzeneko ondorengo baten edo batzuen aldekoa izatea edo, bestela, anai-arreba edo iloba baten edo batzuen aldekoa.”

b') Eskualdaketa egiten duena enpresa- edo lanbide-jardueran aritu izana aurreko bost urteetan gutxienez, eta eskuratzaila edo eskuratzailaiek eskualdatzailearen jardura berean jarraitzea beste bost urtez, gutxienez.

c') Eskualdatzaileak egindako eskualdaketa berri ematea Administrazioari, hura egin zen ekitaldiari dagokion zerga-aitorpenean.”

Hamabi. 39.5.b) artikulua testu berria.

“Hirurogeita hamabost urtetik goitiko pertsonen beren ohiko etxebizitza eskualdatzean sortuak.”

Hamahiru. 47.1.a).b') artikulua azken lerrokada.

“Letra honetan, a)-n alegia, ezarritakoari dago-kionez, ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa edo lanbide jardueri atxiki gabeko elementu gisa ere, haien erosketa prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino gutxiago bada, baldin eta mozkin horiek enpresa edo lanbide jardueren ondoriozkoak badira; horren muga bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko mozkin haien zenbatekoa izanen da. Dibidenduak ez dira enpresa edo lanbide jardueren mozkinekin pareagarriak izanen, ez eta aurreko lerrokadaren bukaerako zatian aipaturiko baloreetatik heldu direnak ere, partaidetzako entitateak jasotako dirusarreraren gutxienez 100eko 90 foru lege honetako 33. artikuluan aipaturiko enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik sortzen ez bada.

Hamalau. 55.1 artikulua 6. puntua.

“6. Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizketen kopuru gehieneko bateratua eta muga, ondo-

ren finkatzen diren kopuruetatik txikiena izanen da.

a) Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbier, eta enpresa edo lanbide jardueretako enbaturaren 100eko 25.

Ondorio hauetarako, enpresa edo lanbide jardueren etekin izanen dira 47. artikuluko 1. zenbakiko b) eta c) letretan arautzen diren sozietate gardenek beren bazkideei egotzitakoak, beren jarduera sozietate horietan profesional gisa, artista edo kirolari gisa burutzen dituzten bazkideei egotzitakoak direnak.

Nolanahi ere, berrogeita hamabi urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko porzentajea 100eko 40 izanen da.

b) Urteko 1.200.000 pezeta.

Dena den, berrogeita hamabi urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko ehunekoari 100.000 pezeta gehituko zaizkio partaide edo mutualistaren adinak berrogeita hamabi urtez goiti egiten duen urte bakoitzeko. Hirurogeita bost urte edo gehiagoko partaide edo mutualisten kasuan, 2.500.000 pezetakoa izanen da.”

Hamabost. 55.1 artikuluar puntu bat (7.a) gehitzea.

“7. Aurreko mugekin egindako murrizketez gain, subjektu pasiboak zilegi izanen du bere ezkontidea partaide edo mutualista deneko pensio plan edo gizarte aurreikuspeneko mutualitate-etara egindako ekarpenak zerga oinarri orokorrean murriztea, baldin eta ezkontideak jasotzen ez badu lanaren edo enpresa zein lanbide jardueren etekin garbirik, edo, jasoz gero, urtean 1.400.000 pezetara ailegatzen ez badira. Gehieneko muga 300.000 pezeta izanen da.”

Hamasei. 55. artikuluar 3 eta 4. idatz-zatiei testu berria eman eta bi idatz-zati (5 eta 6.a) gehitzea.

“3. Gutxiengo pertsonalarengatik.

Gutxiengo pertsonala, oro har, 561.000 pezetakoa izanen da subjektu pasibo eta urte bakoitzeko.

Zenbateko hori 650.000 pezetakoa izanen da subjektu pasiboa hirurogeita bost urtez gotikoa bada, eta 850.000 pezetakoa ezgaitua izan eta 100eko 33 edo gradu handiagoko eta 100eko 65 baino gutxiagoko minusbaliotasuna duenean. 1.150.000 pezetakoa izanen da minusbaliotasuna 100eko 65 edo handiagoa denean.

4. Gutxiengo familiarrengatik.

1. Gutxiengo familiarra ondoko hau izanen da:

a) 100.000 pezeta urtean, subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errentak (salbuetsiak barne) lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak dituen hirurogeita bost urtez goitiko aurreko ahaide bakoitzeko.

Aurrekoen famili unitatearen urteko errentak, salbuetsiak barne, gutxieneko lansari horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, murrizketa 100.000 pezetakoa izanen da aurreko ahaide bakoitzeko.

b) Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errentak (salbuetsiak barne) lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak dituen hogeita hamar urtez beheitiko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko:

– 250.000 pezeta urtean, lehenbiziko, bigarren eta hirugarrenarengatik.

– 400.000 pezeta urtean, laugarren eta hurrengoengatik.

c) Subjektu pasiboaren menpe dagoen ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzarengatik edo aurreko ahaide bakoitzarengatik, edozein adinekoak direla ere, urteko errentak (salbuetsiak barne) kasuan kasuko zerga-aldiko lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak izan eta 100eko 33 edo minusbaliotasun handiagoko eta 100eko 65 baino txikiagoko gradua baldin badute, aurrekoez gain (bidezko badira), 300.000 pezeta urtean. Kopuru hori urteko 600.000 pezetakoa izanen da kreditaturiko minusbaliotasun gradua 100eko 65 edo handiagoa denean.

In voce 6 zuzenketako idatz-zatia falta da.

Subjektu pasiboak eskubidea izanen du 300.000 pezeta kentzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak ezarritako irizpide eta baremoen arabera pertsona lagundutzat hartzen den hirurogeita bost urte edo gehiagoko ahaide bakoitzarengatik, baldin eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Kenketa pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak eginen du, edo, horrelakorik ez badu, graduaren arabera hurbilen duen ahaideak. Hemen idatzi behar da in voce 3 zuzenketako testua.

Lagundutako pertsona dela frogatu beharko da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak ekitaldi bakoitzean emandako ziurtagiriaren bidez.

Aurreko b) eta c) letretan agindutakoei begira, aplikatzekoa den legeria zibilean ezarri bezala

tutoretza, adopzio edo harrera bidez subjektu pasiboari loturiko pertsonak ondorengoaren parekoak izanen dira.

2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxiengo familiarrak aplikatzeko eskubi-dea, zenbatekoa haien artean zati berdinetan banatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduarekin, gutxiengo familiarra gradurik hurbileneko horiei aplikatuko zaie, non horiek ez duten lanbide arteko gutxieneko soldataz goitiko errentarik (salbuetsiak barne), kasu horretan ondoko gradukoiei aplikatuko baitzaie.

Aurreko ahaideengatik aurreikusitako murrizketa aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izanen da ahaide hori subjektu pasiboarekin eta haren kontura bizi izatea, gutxienez zerga-aldiaren erdian.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxiengo pertsonala eta familiarra osatuko dituzte aurreko zenbaki jarraikiz aplikatu behar diren zenbatekoen batunek.

5. Familiaren etxean hamasei urtez beheitiko seme-alabak, hirurogeita bost urtez goitiko aurrekoak, ezgaituak edo hirurogeita bost urtez goitiko subjektu pasiboa bera zaintzeko kontratatutako pertsonengatik Gizarte Segurantzari ordaindutako zenbatekoak. Ordainketa horiek justifikatzeko modua erregelamendu bidez zehaztuko da.

6. Artikulu honetan aipatu murrizketak ondoko arau hauei jarraikiz eginen dira:

1. Aurrena, 1 eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira.

2. Eraitza positiboa bada, 3, 4 eta 5. zenbaki-takoak aplikatuko dira, haren mugaraino. Aplikatu gabe gelditzen den zenbatekoak, baldin badago, zerga oinarriaren zati berezia gutxituko du eta oinarri hori ezin izanen da negatiboa izan.

Eraitza negatiboa bada, 3, 4 eta 5. zenbaki-takoak zerga oinarriaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan."

Hamazazpigarrena. 60. artikulua.

"60. artikulua. Oinarri likidagarri bereziaren karta-tasa.

Oinarri likidagarri bereziaren karta-tasa 100eko 18 izanen da."

Hemezortzi. 62. artikulua testu berria.

"62. artikulua. Kuota-kenkariak

1. Ohiko etxebizitzarengatik kenkaria.

a) Subjektu pasiboak Espainiako lurraldean duen edo izanen duen ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik ekitaldian ordaindutako diru kopuruen 100eko 15. Kenkari horren oinarri gehienekoa urteko 1.500.000 pezetakoa izanen da.

Kenkaria aplikatzeko, ondokoa eskatuko da:

1go. Ohiko egoitza, segidako hiru urteren barnean subjektu pasiboa bizi deneko etxebizitza izanen da. Hala ere, etxebizitzak izaera hori izan zuela ulertuko da, nahiz epe hori ez iragan, subjektu pasiboa hiltzen bada edo etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

2gn. Subjektu pasiboa etxebizitzan benetan bizi-tzea eta etengabea hamabi hilabetez, etxebizitza erosi eta obrak bukatzen ziren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza badu, daukan kargu edo enpleguarengatik, epe hori kargu uztearen egunetik hasiko da kontatzen.

Kreditu entitateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta dispozizio baldintzak betetzen dituzten kontuetan, sartzen diren kopuruak izanen dira ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzen erabilizat jotzen direnak, baldin eta ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeko erabiltzen badira.

Ondorio horietarako, zaharberritzea ondokoa betetzen duena da:

a) Egoitza- eta hiri-ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko ditu, baldin eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez bermatzen bada hori.

b) Etxebizitzaren egitura, aurreko aldea, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz bererai-kitzeko xedea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak ehuneko hogeita bostean gaintzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan egin bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak zaharberritu baino lehen zeukan egiazko balioa gaintzen badu.

b) Kenkari honen oinarria etxebizitza erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru kopuruek osatuko dute, eroslearen kargu izan diren gastuak barne. Inoren finantzaketarekin egin bada, horren ondoriozko amortizazioa, korrituak eta gainerako gastuak ere gehituko zaizkio oinarriari.

Hauxe kenduko zaio aurreko lerrokadan aipatzen den kenkari-oinarriari: aurretik zegoen ohiko

etxebizitzarengatik kuotari kendu zaizkion kenkarietarako zegokien oinarri-zenbatekoa, eta baita ohiko etxebizitza berria berriro inbertitzeagatik salbuesitako ondare-gehikuntzaren zenbatekoa ere. Aipatu kenketa hori egiteko, subjektu pasiboak ezin izanen du ohiko etxebizitza berria erosteagatik kuota-kenkaria aplikatu, baldin eta berri horretan inbertitzen diren zenbatekoek ez badituzte gainditzen arestian esandako kopuruak.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberitzeagatik egindako kenkarietarako dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 15.000.000 pezetako zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zerga-aldiak batera hartuz gero.

d) Zenbaki honetan xedatutakoari begira, zergak aitorten bateratua eginez ordaindu diren zerga-aldietan ohiko etxebizitza erosi edo zaharberitzeagatik egindako kenkarietarako dagozkien oinarriak, kenkarirako eskubidea sortu zuten subjektu pasiboek egindakotzat hartuko dira.

e) Kenkari honi dagokionez, ezkontzaren araubide ekonomikoa irabazpidezkoa baldin bada, ezkontzan zehar ordaindutako zenbatekoak, zenbaki honetako b) letran aipatzen direnak, irabazpidezko ondasunen sozietateko funtsekin ordainduztat hartuko dira, eta ezkontide bakoitzaren kenkaria aipatu sozietatean duen partaidetzaren arabera izanen da.

f) Ohiko etxebizitza egokitzeko lan eta instalazioak egiten dituzten subjektu pasiboek ere zilegi izanen dute ohiko etxebizitzarengatik aurreikusitako kenkaria aplikatzea, baita lan horiek eraikinarren elementu komunak eta finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak direnak badira ere, ondoko zehaztapen hauekin:

a') Egokitze lan edo instalazioek Administrazio eskudunaren ziurtagiria izanen dute, haien erabilgarritasuna eta zentzumen-komunikazioa bermatzeko beharrezkoak direla frogatzeko, bide emanen baitute horrela minusbalioetasuna duten pertsonak haietan duintasunez moldatzeko, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

b') Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egokitze lan edo instalazioak egin behar baldin badira subjektu pasiboa bera, haren ezkontidea edo bikote iraunkorra, edo harekin bizi den aurreko nahiz ondorengo ahaideren bat minusbalioetasuna delako, zilegi izanen da horiengatik kenkaria egitea.

c') Etxebizitzan b) letran aipaturiko pertsonetarik edozeinek bizi beharko du, jabe, errentari, azpierrenerari nahiz usufuktudun izan.

Ulertuko da etxebizitza aldatzeak eskatzen duen egoera dela aurreko etxebizitza minusbalioetasuna dela-eta egokia ez izatea.

g) Hiru kidez goitiko famili unitateen kasuan, a) letran aipaturiko portzentajea 100eko 18 izanen da.

2. Ohiko etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

100eko 15a eta gehienez ere 100.000 pezeta urteko, subjektu pasiboak zerga-aldian bere ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak ez izatea zerga-aldian hiru milioi eta bostehun mila pezeta baino gehiagoko errenta, salbuesiak barne.

– Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zerga-aldiko errentaren 100eko 10 baino gehiagokoak izatea, salbuesiak barne.

3. Kenkariak enpresa- edo lanbide-jardueretan.

Zerga honen subjektu pasiboetarako, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauetan enpresari inbertsiorako eta enplegua sortzeko kuotako kenkaria gisa ezarritik edo ezartzeko dauden pizgarri eta bultzagarriak aplikatzen ahalko zaizkie, kenkariaren portzentajea eta mugak berdinak direlarik.

Hala ere, pizgarri horiek, erregelamendu bidez hala ezartzen denean baizik ez zaizkie aplikatzen ahalko zerga oinarrien zenbatespen objektiboaren araubidearen menpeko subjektu pasiboetarako, araubide horren ezaugarri eta betebeharrak formalak kontuan harturik.

4. Dohaintzengatik kenkariak.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitakoak.

5. Lanarengatik kenkariak.

Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek 95.000 pezeta kendu ahal izanen dituzte.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu 59. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karta-tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza.

6. Dibidenduengatik kenkaria.

Foru Lege honetako 28. artikuluan 1. zenbakiak aipatzen dituen etekinek, funts propioetan parte hartzeagatik eskuratutakoek, ondoko zenbatekoa izanen duen kenkari baterako eskubidea sortuko dute: aipatu artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zerga oinarrian integraturiko zenbatekoari lorturiko etekin osoa kendu eta ateratzen den emaitza.

Ezarpen bikoitzarengatik kenkaria, babestuta eta bereziki babestutako kooperatiben itzulketei dagozkienak eta ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeaz araututakoak, Foru Lege horren 34. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eginen da.

Kuota likidoa aski ez delako aplikatu ez den kenkariaren zenbatekoa ondoko lau urteetan kendu ahal izanen da.

7. Interes kulturalako ondasunengatik kenkaria.

a) 100eko 15a, Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean jasota dauden ondasunak erosten egindako inbertsioena, betiere ondasuna titularraren ondarearen barnean baldin badago gutxienez hiru urtez eta eskualdatzea Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokor horri jakinarazten baldin bazaio, gai honi buruzko berariazko arauetan xedatutakoari jarraikiz.

b) 100eko 15a, aitzineko letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten ondasunen kontserbazio, konpontze, zaharberitze, hedapen eta erakuste gastuen zenbatekoarena, fiskalki kentzen ahal diren gastutzat jotzen ahal ez diren aldetik, kasuan kasu bidezko den etekin garbia zehaztekoan.

Hemezortzi bis. 64. artikuluan testu berria.

“64. artikulua. Halako kenkari batzuen muga.

1. 62. artikuluko 4. idatz-zatian aipatzen diren dohaintzengatik kenkariaren oinarria, gehienez ere, subjektu pasiboaren oinarri likidagarriaren 100eko 20a izanen da.

2. Enpresa- edo lanbide-jardueren kenkariaren mugak, 62. artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen dituenak,

61. artikulua aipatzen duen kuota likidoari aplikatuko zaizkio.

3. 62. artikuluko 7. idatz-zatiak aipatzen dituen interes kulturalako ondasunetako kenkariaren oinarria ezin izanen da subjektu pasiboaren oinarri likidagarriaren 100eko 20 baino gehiago izan.”

Hemezortzi ter. 65. artikuluan lehendabiziko idatz-zatiaren testu berria.

“62. artikuluko 1 eta 7.a) idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkariaren aplikazioak subjektu pasiboak zerga-aldiaren amaieran duen ondarearen balio frogatuak gutxienez hasieran frogatutakoa baino handiagoa izan beharko du, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko korrituak eta finantziazioaren gainerako gastuak.”

Hemeretzi. e) letra gehitu zaio 66. artikuluari.

“e) Subjektu pasiboa etxebizitza aldatzeagatik halakotu bada, foru lege honetako 81. artikuluko 8. zenbakian aipaturiko konturako atxikipen eta ordainketak, bai eta Egoitza Kanpoan dutenen Errentaren gaineko Zergan ordaindutako kuotak ere, etxebizitza aldaketa egin zen zerga-aldian sorrarazi baziren.”

Hogei. 75. artikuluan testu berria.

“75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

Baterako zerga-ordainketaren kasuetan, ondoko erregela bereziak aplikatuko dira:

1go. 62. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako gehieneko oinarria urteko 3.500.000 pezetakoa izanen da famili unitate osorako.

2gn. 62. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran ezarritako guztizko zenbatekoa 35.000.000 pezetakoa izanen da famili unitate osorako.

3gn. 62. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den errenten muga 8.000.000 pezetakoa izanen da famili unitate osorako.

4gn. 64. artikuluko 1 eta 3. idatz-zatietan ezarritako gehieneko zenbatekoa, famili unitateko kide guztien likidazio-oinarrien baturari aplikatuko zaio.

5gn. 64. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako gehieneko zenbatekoa, famili unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

6gn. 71. artikuluko 1 idatz-zatiaren a) eta b) letrek aipatzen dituzten famili unitateen kasuan, 55. artikuluko 6. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako batek edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan badu aplikatu 3, 4 eta 5. idatz-zatietan aipatzen diren murrizketak, gerakina beste ezkontidearen gutxieneko pertsonal eta familiarrari erantsiko zaio.

7gn. 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letrak aipatzen dituen famili unitateen kasuan, Foru Lege honetako 55. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako gutxiengo pertsonala 900.000, 1.000.000, 1.200.000 edo 1.500.000 pezetakoa izanen da, hurrenez hurren. Aita eta ama elkarrekin bizi baldin badira, gutxieneko pertsonala Foru

Lege honetako 55. artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitakoa izanen da.”

Hogei bis. 77.6 artikulua testu berria.

“6. Aurreko 55. artikulua 4. idatz-zatian aipatzen den eta subjektu pasiboari dagokion familiako gutxienekoa gutxitu egingen da zerga-aldia osatzen duten egun naturalen arabera, proportzionalki, salbu baterako zerga-ordainketaren kasuan; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera ateratzen diren murrizketen zenbatekoak gutxitu egingen du, kontzeptu berberengatik beste subjektu pasibo batzuek egiten ahal dituzten murrizketen zenbatekoa.”

Hogeita bat. 81. artikulua bi idatz-zati (8.a eta 9.a) gehitzea.

“8. Subjektu pasiboa etxebizitza aldatzeagatik halakotu bada, egoitza kanpoan dutenen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipen eta ordainketak, etxebizitza aldatu zen zerga-aldian eginak, Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira.

9. Epai judizial edo administratiboaren ondorioz Zerga honen konturako atxikipen edo ordainketari loturiko errenta bat ordaindu behar baldin bada, ordaindu beharreko zenbateko osoaren gainean egingen du ordaintzaileak atxikipen edo ordainketa hori, eta zenbateko hori sartu beharko du artikulua honetan ezarritakoari jarraikiz.

Lan etekinak direnean, erregelamenduz ezarri ahalko da atxikipena foru lege honen 17.2 artikuluan aurreikusirik murrizketak egin ondoko zenbatekoari egitea.”

Hogeita bi. 91. artikulua 1 eta 2. idatz-zatiak.

1. Foru Lege honetako 66. artikulua e) letran ezartzen diren konturako atxikipen eta ordainketa, zatikako ordainketa eta kuoten batura, Egoitza Kanpoan dutenen Errentaren gaineko Zergarenak denak, handiagoa bada ezarritako epean aurkeztutako autolikidazioaren emaitza den kuota baino, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, hala behar bada, behin-behineko likidazioa egingen du aitorpena aurkezteko ezarritako epea amaitu eta sei hilabeteren barruan.

Egindako itzulketaren zenbatekoa eta subjektu pasiboak aitorpen-likidazioan edo autolikidazioan eskatutakoarena berdina bada, likidazio hori ez da beharrezkoa izanen.

Aitorpena epez kanpo aurkeztu baldin bazen, aurreko zenbakian aipaturiko sei hilabeteko epea aurkezpen egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2. Txikiagoa bada autolikidazioaren emaitzako kuota edo, halakorik balitz, behin-behineko likidazioarena, benetan atxikitako kopuru eta konturako ordainketak baino, eta foru lege honetako 66. artikulua e) letran aipaturiko Egoitza Kanpoan dutenen Errentaren gaineko Zergaren kuotak baino, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ofizioz itzuliko du aipatutako kuotaren gaineko soberrakina, deusetan galarazi gabe egoki diren ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak.”

Hogeita bi bis. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1.a idatz-zatiaren a') eta b') letran aldaketa.

a') Partaide bakoitzak, urtean, minusbaliotasuna duten pertsonen alde egiten dituen ekarpenak: 1.200.000 pezeta urtean, beraien pentsio planetarako egin ditzaketen ekarpenen kaltetan joan gabe, foru lege honen 55. artikuluan ezarritako mugekin bat.

b') Partaide diren minusbaliatuek urtean egiten dituzten ekarpenak: 2.500.000 pezeta urtean.

Minusbaliatu bakar baten aldeko ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek egindako murrizketa guztiek, minusbaliatuarenek barne, gehienez ere 2.500.000 pezeta egingen dute urtean. Hartara, minusbaliatuaren aldeko ekarpenak bat baino gehiago direnean, murrizketa egingen zaie, lehen-dabizi, minusbaliatuak berak egindako ekarpenei; horiek ez badute aipatu muga, 2.500.000 pezetakoa, gainditzen, murrizketa aplikatu ahal izanen zaie ere beste pertsona batzuek haren alde egindako ekarpenei, haien zerga oinarrian eta modu proportzionalean. Minusbaliatu bakar baten aldeko ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek izanen dituzten murrizketek inolaz ere ezin izanen dute gainditi 2.500.000 pezetako kopurua.”

Hogeita hiru. Hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaseigarrena. Kirolari profesionalen gizar-te aurreikuspeneko mutualitatearen ekarpen eta prestazioen zerga araubidea.

Bai kirolari profesionalen mutualitatearen ekarpenei –baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak, ezaugarri eta baldintzak betetzen badituzte– bai eta haietatik etorritako prestazioei, ondoko zerga araubidea aplikatuko zaie:

a) Egindako ekarpenengatik, hala zuzeneko nola egotzitakoengatik, murrizketa egin ahalko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean; horretarako muga izanen da lanarengatik eta jarduera ekonomikoengatik ekitaldian banaka jasotako etekin garbien batura, eta betiere urtean 2.500.000 pezetako zenbatekoa gainditu gabe.

b) 40/1998 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatian aipatuak ez bezalako kasuetan kontsolidatutako eskubideak erabiltzen baldin badira, subjektu pasiboak zerga oinarrian zilegi izan gabe egindako murrizketak birjarri beharko ditu; gainera, aitorten-likidazio osagarriak eginen dira, berandutza korrituak barne. Bestalde, kontsolidatutako eskubideen aurretiazko erabilpenengatik jasotako zenbatekoek zerga ordainduko dute higigarrien kapitalaren etekin gisara, non eta Pentsio Plan eta Funtsen Erregulazioari buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen lehenbiziko xedapen gehigarrian aipaturiko aseguru kontratuetatik heldu ez diren, kasu horretan lanaren etekin gisara tributatuak baitute.

c) Jasotako prestazioek, bai eta kontsolidatutako eskubideak 40/1998 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatian aurreikusitako kasuetan erabiltzeak, lan etekin gisara tributatuak dute oso-osorik.

d) Aurreko letretan aurreikusitako araubide berezia alde batera utzita, kirolari profesionalak eta goi mailakoek zilegi izanen dute kirolari profesionalentzako gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egitea, kirolari profesional gisa lan-bizitza bukatu badute ere edo galdua izan arren goi mailako kirolariaren izaera.

Ekarpen horiengatik murrizketa egin ahalko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean, ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan aurreikusitako goitibeherak estaltzeko erabiltzen den zatian, betiere Foru Lege horretako 55.1.5 a), b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Ekarpen horien murrizketaren baterako gehieneko muga, gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako pentsio plan eta aseguru kontratuetarako Foru Lege horretako 55.1.6 artikuluan ezarritakoa izanen da.”

Hogeita lau. Zazpigarren xedapen iragankorri 4. zenbakia gehitzea.

“4. 1994ko abenduaren 31 baino lehenago eskuratutako eta enpresa- edo lanbide-jardueretara atxikiriko eskubide eta ondasun ez-materialen eskualdatzearen ondoriozko ondare-gehikuntzak

kalkulatzeko, aurreko idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiko zaio, baldin eta eskualdaketa ezintasun iraunkorraren edo erretiroaren ondorioz gertatu bada.

2. artikulua. Ondareari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira, ondoren azaldu bezala:

IDATZ-ZATI BERRIA. 5.4 artikulua testu berria.

“4. Abenduaren 9ko 41/1998 Legearen 13. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, etekinak Nafarroan egoitza ez dutenen errentaren gaineko zergatik salbutsirik dituzten baloreak.”

Bat. 5. artikuluar 7. idatz-zatia gehitzea.

“7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 72. artikuluan ezarritako definizioaren arabera; gehieenez 25.000.000 pezeta.”

Bi. 25. artikulua.

“25. artikulua. Kontzeptu ez-kengarriak.

Ondoko hauek izanen dira:

a) Abalatutako zenbatekoak, abal-emaileak zorra ordaindu behar duen arte, zordun nagusiaren aurkako eskubidea erabili eta horrek huts egiteagatik. Abal solidarioaren kasuan, abalatutako zenbatekoak ez dira kengarriak izanen abal-emailearen aurkako eskubidea erabili arte.

b) Bermearen eskubide errealak, ezertan ukatu gabe bermatutako zorra kengarria izateko aukera.

c) Ondasun edo eskubide salbuetsiak eskuratzeko hartutako zorrak. Salbuespena partziala denean, zorren zati proportzionala izan ahalko da kengarria.”

3. artikulua. 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zerga-aldietarako ondorioekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko artikulua batzuk, ondoren zehazten direnak, honela geldituko dira:

Bat. 50.3.b) artikulua testu berria.

“b) Martxoaren 24eko 4/1997 Legeak araututako Lan Sozietateak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen 100eko 25 bederen Erreserbako Funts Berezira sartzen badute, salbu sozietatearen jarduera berarizkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienagatik, horiek tasa orokorraren arabera ordainduko baitute.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta oinarri likidagarria positiboa, 100eko 20ko zerga tasa aplikatuko da.”

Bi. VI. Tituluaren III. Kapitulua izenburua.

“III. KAPITULUA. “Ezarpen bikoitza saihesteko bideak”

Hiru. 60. artikuluko 4. idatz-zatiaren testu berria.

“4. Kuota osoaren askiezagatik kendu ez diren zenbatekoak, ondorengo eta segidako hamar urteetan amaitzen diren zerga-aldietan kendu ahal izanen dira.”

60. bis artikulua. Finkagune iraunkorraren bidez atzerrian jasotako errenta jakin batzuen salbuespena.

1. Espainiako lurraldetik kanpoko finkagune iraunkor baten bidez atzerrian lortutako errentak salbuetsirik egonen dira, ondoko baldintza hauek betetzen direnean:

a) Finkagune iraunkorraren errenta atzerrian egindako enpresa-jardueretatik etortzea, Foru Lege honetako 62. artikulua 1. zenbakiko c) letran aurrekusi bezala.

b) Finkagune iraunkorra zerga hau bezalako beste zerga baten menpe izana izatea, 62. artikuluari jarraikiz, eta erregelamenduaren arabera paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo eskualde batean ez egotea.

2. Aurreko zerga-aldietan finkagune iraunkorrek errenta garbi negatiboak izan baldin baditu, entitatearen zerga oinarrian sartu direnak, artikulua honetan aurreikusitako salbuespena edo foru lege honen 60. artikulua aipatzen duen kenkaria aplikatuko zazkie errenta negatibo horien zenbatekoa gainditzen dutenetik aurrera lortutako errenta positiboetara eta ez besteei.

3. Ondorio horietarako, atzerriko finkagune baten bidez aritzen den entitateetatik hartuko da, edozein titulu dela eta, bere jardura osorik edo parte batean burutzeko instalazioak edo lantokiak Espainiako lurraldetik kanpo modu iraunkorrez dituenak. Zehazki, finkagune iraunkorrek izanen dira Hitzarmen Ekonomikoaren 14. artikuluan aipatzen direnak. Finkagune iraunkorra dagoen herrialdearekin Espainiak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena baldin bada izenpeturik eta hitzarmen hori aplikatzeko baldin bada, horren menpean egonen da.

4. Subjektu pasiboari edo atzerrian lortutako errentei dagokienez, 62. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako goitibeherak gertatzen direnean, ez

da artikulua honetan ezarritako araubidea aplikatuko. Espainiako lurraldearen kanpoko finkagune guztiak baliatuko dira zenbaki horretako c) letran aipatu aukeraz, nahiz eta herrialde baten lurraldean bat baino gehiago izan.”

Bost. 61. artikuluko 4 eta 5. idatz-zatien testu berria.

“4. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak hurrengo eta jarraiko hamar urteetan bukatuko diren zerga-aldietan kendu ahal izanen dira.

5. Dibidenduak edota mozkinetako partaidetzak eskuratuko dituen entitatearen zerga oinarriari ez zaio mozkinen banaketagatik ondorioztaturiko partaidetzaren balio-galera sartuko, balio-galera hori agertuko den modua eta zerga-aldia edozein delarik ere, non eta mozkin horien zenbatekoak Espainiako lurraldean tributatu ez duen, partaidetzaren edozein eskualdaketaren bidez.”

Sei. 62. artikulua izenburua.

“62. artikulua. Atzerrian lortutako dibidendu eta errenten gaineko nazioarteko zergapetze ekonomiko bikoitza saihesteko salbuespena, errenta horiek egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateen funts propioen ordezkari diren baloreen eskualdaketatik heldu baldin badira.

1. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateen mozkinen dibidendu edo partaidetzak salbuetsirik egonen dira ondoko baldintza hauek betetzen direnean:

a) Egoitza kanpoan duen entitatearen kapitalean edo funtsetan duen zuzeneko edo zeharkako partaidetzaren portzentajea gutxienez 100eko 5ekoa izatea.

Partaidetza hori etenik gabe eduki beharko da banatzen den mozkin aurreko urtean, edo, bestela, etenik gabe mantendu beharko da gero, aipatu epea osatzeko behar den denboraz. Epe hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da partaidetza beste entitateen esku etenik gabe egon den denbora ere, baldin eta entitate horiek sozietateen talde bateko kide izateko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

b) Partaidetzako entitatea zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati loturik egona izatea, banaketak edo partaidetzako mozkinak eskuratu diren ekitaldian.

Ondorio horietarako, atzerriko zergak kontuan hartuko dira baldin eta, hein batean bada ere, partaidetzako entitateak lortutako errenta zergapetze-

ko xedea badute, alde batera utzita zein den zergaren helburua: errenta bera, sarrerak edo haren beste edozein adierazle.

Besterik frogatzen ez bada, baldintza hori betetzen dela joko da, partaidetzako entitateak bere egoitza nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena (aplikagarria eta informazioa trukatzeko klausula batekin) izenpetu duen herrialde batean badu.

Inolaz ere ez da artikulua honetan xedatutakoa aplikatuko partaidetzako entitateak egoitza baldin badu erregelamenduz zerga-paradisuen kalifikazioa duen herrialde edo lurralde batean.

c) Banaketako edo partaidetzako mozkinen jatorria atzerriko enpresa jarduerak izatea.

Baldintza hori betetzat emateko, beharrezkoa izanen da ekitaldiko sarreraren gutxienez 100eko 85 ondoko hauetatik etortzea:

a') Atzerrian lortuak izanik, nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidea aplikatzearen ondorioz zerga oinarrian sartzen ahal diren errentak ez izatea. 101. artikuluan aipatzen dira errenta mota horiek. Nolanahi ere, beste entitate batzuen mozkinetan partaidetza izatetik heldu diren errentek edo baloreak edo partaidetzak eskualdatzetik heldu direnek hurrengo b') letrako baldintzak bete beharko dituzte.

Zehazki, ondorio horietarako, atzerrian lortutako errentatzat hartuko dira ondoko jarduera hauetatik heldu direnak:

– Handizkako merkataritza, entitate partaidetuak egoitza non duen, bertan jartzen badira ondasunak erosleek eskura, edo, bestela, Espainiatik kanpoko beste edozein herrialde edo lurraldetan, betiere eragiketarako entitate partaidetuak dituen baliabide pertsonal eta materialen bitartez egiten badira.

– Zerbitzuak, entitate partaidetuak egoitza non duen, bertan erabiltzen baldin badira, edo, bestela, Espainiatik kanpoko beste edozein herrialde edo lurraldetan, betiere entitate partaidetuak dituen baliabide pertsonal eta materialen bitartez egiten badira.

– Kreditu- eta finantza-jarduerak, entitate partaidetuak egoitza non duen, maileguak eta kredituak bertan bizi diren pertsonen ematen bazaizkie, edo, bestela, Espainiatik kanpoko beste edozein herrialde edo lurraldetan, betiere eragiketarako entitate partaidetuak dituen baliabide pertsonal eta materialen bitartez egiten badira.

– Aseguru eta berraseguru jarduerak, entitate partaidetuak egoitza non duen, bertan badaude

aseguraturako arriskuak, edo, bestela, Espainiatik kanpoko beste edozein herrialde edo lurraldetan, betiere jarduera horiek entitate partaidetuak dituen baliabide pertsonal eta materialen bitartez egiten badira.

b') Egoitza kanpoan duten bestelako entitateen dibidendu edo mozkinen partaidetzak, subjektu pasiboak a) letran ezarritako ehunekoaren eta antzinakotasunaren baldintzak betetzen dituen zeharkako partaidetza duenean, eta mozkin horiek eta entitateek ere zenbaki honetako gainerrako letretan aipatu baldintzak betetzen badituzte. Era berean, egoitza kanpoan duten entitateetako partaidetza eskualdatzetik heldu diren errentak ere, hurrengo zenbakiko baldintzak betetzen baldin badira.

Erreserba banaketaren kasuan artikulua hau aplikatzeko, kontuan hartuko da sozietatearen akordioan dagoen izendapena, eta horren ezean, aplikatutzat hartuko dira erreserba horiei ordaindutako azkeneko zenbatekoak.

2. Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen entitate bateko partaidetza eskualdatzetik jasotako errenta positiboa salbuesirik egonen da, aurreko zenbakian ezarritako baldintzak betetzen baldin badira. Araubide bera aplikatuko da bazkidea bereizten denean edo entitatea desegiten denean.

Aurreko zenbakiko a) letran ezarritako baldintza eskualdaketa egiten den egunerako bete beharko da. Aurreko zenbakiko b) eta c) letretan finkatutako baldintzak partaidetza edukitzen den ekitaldi guztietan bete beharko dira. Dena den, egoitza kanpoan duen entitateko partaidetza foru lege honetako X. tituluko IX. kapituluko araubide bereziaren arauari jarraikiz baloratu baldin bada, salbuespena aplikatuko da zenbaki honetako d) letran ezarritako baldintzen arabera.

Eskuratzaileraren erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean bizi baldin bada, ez da salbuespena aplikatuko.

Salbuespenaren aplikazioak ezaugarri bereziak izanen ditu ondoko kasu hauetan:

a) Egoitza Espainian ez duen entitateak egoitza Espainiako lurraldean duten entitateetako partaidetzak zuzenean edo zeharka baditu, edo lurralde horretan kokaturiko aktiboak, eta batzuen eta besteen merkatuko balioa, osotara, bere aktibo osoen merkatu-balioaren 100eko 15 baino handiagoa denean.

Kasu horretan, salbuespena lortutako errentaren zati bati aplikatuko zaio bakarrik, alegia, partaidetza edukitzen den aldiaren partaidetzako entita-

teak sortutako banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbiari dagokionari.

b) Subjektu pasiboak balio zuzenketaren bat egin duenean eskualdatutako partaidetzaren gainean, zergaren aldetik kengarria suertatuz.

Kasu horretan, salbuespena aplikatuko zaio eskualdaketa zuzenketa horren zenbatekoaren gainean lortutako errentaren soberakinari.

c) Egoitza kanpoan duen entitateko partaide-tza eskualdatu zaion entitateak betetzen baldin baditu subjektu pasiboarekin sozietate talde bereko kide izateko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzak, eta zerga honen zerga oinarrian sartu den errenta negatiboa eskuratu duenean.

Kasu horretan, partaidetzaren eskualdaketa lortutako errenta positiboa kargatuko da taldeko beste entitateak lortutako errenta negatiboaren zenbatekoraino.

d) Egoitza kanpoan duen entitateko partaide-tza Foru Lege honetako X. Tituluko IX. Kapituluko araubide bereziaren arauei jarraikiz baloratu baldin bada eta arau horiek aplikatzearen ondorioz, baita aurreko eskualdaketa batean ere, zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Egoitza kanpoan dutenen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian ondoko hauetatik heldutako errentak sartu ez badira:

a') Egoitza Espainiako lurraldean duen entitate bateko partaidetzaren eskualdaketatik.

b') Aurreko 1. puntuko b) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen ez dituen egoitza kanpoan duen entitate bateko partaidetzaren eskualdaketatik.

c') Ondarearen bestelako elementuen ekarpen ez-diruzkoa.

Kasu horretan, salbuespena aplikatuko zaio, bakar-bakarrik, egoitza kanpoan duen entitateko partaidetzaren eskualdaketa baliorearen eta entitate eskualdatzaileak eskuratzen duenean hark merkatuan duen balio normalaren arteko alde positiboari dagokion errentari.

3. Artikulu honetan aurreikusitako salbuespena ez da ondoko hauetan aplikatuko:

a) Sozietate gardenek lortutako errentak, jatorria atzerrian dutenak.

b) Artikulu honetan aurreikusitako zerga araubideaz baliatzeko asmo nagusiaz atzerrian diharduten entitateetatik heldu diren errentak, jatorria atzerrian dutenak. Goitibehera hori betetzen dela ulertuko da baldin eta eskumenpeko entitateak

atzerrian egiten duen jarduera bera, merkatu berari buruz, Espainian aurretik beste entitate batek egin badu, entitate horrek utzi egin baldin badio jarduera hori egiteari eta bestearekin mantentzen baldin badu Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako loturetako bat, ekonomiaren aldetik balioa duen beste arrazoiren bat frogatzen denean izan ezik."

c) Entitateak bere zerga oinarrian sartzan dituen errentak, jatorria atzerrian dutenak, horiei dagokienez, eta bidezkoa baldin bada, foru lege honetako 60 edo 61. artikuluetan ezarritako kenkaria aplikatzea aukeratzen duenean.

4. Nolanahi ere, jatorria atzerrian duten dibidenduei salbuespena aplikatu baldin bazaie, ezin izanen da zerga oinarrian sartu partaidetzaren balio-galera, agerian gelditzen den modua eta zerga-aldia zein den ere, dibidendu horien zenbatekoa muga izanik.

Era berean, subjektu pasiboarekin sozietate talde bereko kide izateko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen entitate batek aurretik eskualdaturik dagoen eta egoitza kanpoan duen entitate baten partaidetza eskualdatzean errenta negatiboa lortuz gero, errenta negatibo horri kenduko zaio aurreko eskualdaketa lortutako errenta positiboaren zenbatekoa, errenta horri salbuespena aplikatu ondotik."

Zazpi. Artikulu berri bat gehitzea (66.bis).

"66. bis artikulua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak bultzatzeko kenkaria.

1. Kuota osoan 100eko 15eko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute internet bidezko merkataritzako transakzioetan informazioa lortu eta erabiltzeko gaitasuna hobetzeko zerga-aldian egindako gastu eta inbertsioek, bai eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez barne prozesuak hobetzeko egin direnek ere. Zehazki, ondoko hauek:

a) Internetera sartzea, eta horren barrenean:

1') Internetera sartzeko ekipo eta terminalak erostea, haien "software" eta periferikoekin, internetera sartzeko eta posta elektronikoa erabili ahal izateko.

2') Ordenadoreen barne sareak internetera lotzeko komunikazio ekipo berariazkoak erostea.

3') Sistema horiek jarri eta abiaraztea.

b) Inerneten agertzea, eta horren barrenean:

1') "Web" orrialde eta atariak egin eta argitaratzeko ekipoak erostea, "softwarea" eta periferikoak barne.

2') "Web" orrialde eta atariak diseinatu eta garatzeko lanak, barnean eginak zein kanpoan kontratatuak.

3') Sistema horiek jarri eta abiaraztea.

c) Merkataritza elektronikoa, eta horren barnean:

1') Internet bidezko merkataritza elektronikoa ezartzeko ekipoak, haien "softwarea" eta periferikoak barne, eragiketetan behar diren segurtasuna eta konfidentziasuna bermatuz.

2') Enpresa, bezero eta hornitzaileez osaturiko sare itxien bidez merkatatitza elektronikoa ezartzeko ekipoak erostea, "softwarea" eta periferikoak barne.

3') Sistema horiek jarri eta abiaraztea.

d) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabiltzea enpresa prozesuetan, eta horren barnean:

1') Berriarazko ekipo eta "software" paketeak erostea ordenadoreak lotzeko, ahotsa eta datuak batzeko eta intranet konfigurazioak sortzeko.

2') "Software" paketeak erostea kudeaketa, diseinu eta ekoizpen prozesu berriarazkoetan aplikatzeko.

3') Sistema horiek jarri eta abiaraztea.

2. Nabigatzeko eta ibilgailuak satellite bidez aurkitzeko sistemetarako inbertsioek ere kenkaria eskubidea izanen dute, baldin eta errepideko garraiorako ibilgailu industrial edo komertzialetan paratzen badira.

3. Kenkari hau bateraezina izanen da, ondusun edo gastu eta zenbateko berdinetarako, Zerga honetan ezarritako beste edozein mozkin edo pizgarri fiskalekin."

Zazpi bis. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 68. artikuluari 3. idatz-zati bat gehitzea.

"3. Enplegatuek teknologia berriak erabiltzen ohitzearren entitateak eginiko gastuei ere aplikatuko zaie kenkaria. Gastu horien artean ondokoak sartzen dira: Interneteko konexioa bere esku jarri, erraztu eta finantzatzeko gastuak eta hura –softwarea eta hari lotutako periferiko eta guzti– izateko beharrezkoak diren ekipoak eta terminalak doan zein prezioa beheratuta ematetik, edo diru laguntzak zein maileguak ematetik eratorritakoak, baita enplegatuek lantokitik eta lan orduetatik

kanpo erabiltzen badituzte ere. Zenbaki honetan jasotzen diren gastuak langileak prestatzeko gastutzat joko dira zergen ondorioetarako, eta ez dute enpleguarentzako laneko errendimendua lortzea ekarriko."

Zortzi. 69. artikuluari beste idatz-zati bat (2.a) gehitzea. Gaurko lerrokada bakarra 1. idatz-zatia izanen da hemendik aurrera.

"2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kenkaria aplikatuko da errepide bidezko garraiorako ibilgailu industrial edo komertzial berriak erosten direnean ere, bakar-bakarrik erregelamendu bidez ezartzen baldin bada inbertsioaren zati batek atmosferaren kutsadura gutxitzeko balio duela, eta zati horren zenbatekoan.

Kenkari hori aplikatzeko baldintza eta prozedurak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Zortzi bis. 70.2 artikulua testu berria.

"2. Zinemako luzemetraien produkzio espainiarretan inbertitzeak 100eko 20ko kenkaria izateko eskubidea emanen dio produktoreari, baldin eta produkzioak bide ematen badu euskarri fisiko bat egiteko serieko produkzio industrialari ekin aurretik. Kenkariaren oinarria produkzioaren kostuak eratuko du, koproduttore finantzarioak finantzatoriko zatia kenduta.

Zinemako luzemetrai baten produkzio espainiarrean partaide den koproduttore finantzarioak eskubidea izanen du finantzatzen duen inbertsioaren 100eko 5eko kenkaria izateko, baina muga izanen da inbertsio horietatik zerga-aldian heldu den errentaren 100eko 5.

Kenkari horren ondorioetarako, koproduttore finantzariotzat hartuko da aurreko lerrokadan adierazitako pelikulen produkzioan parte hartzen duen entitatea, partaidetzaren zenbatekoa produkzioaren kostu osoaren 100eko 10etik 100eko 25era bitartekoa baldin bada, pelikulak hustiatzetik heldu diren dirusarreretan partaide izateko eskubidearen truke. Koproduktoreko kontratua, aipatutako inguruabarrak bertan adierazita, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan aurkeztu beharko da.

Zenbaki honek aipatzen dituen kenkariak obra-ren produkzioa amaitzen den zerga-alditik aurrera eginen dira. Zerga-aldi horretan kentzen ez diren zenbatekoak hurrengo zerga-aldietako likidazioetan aplikatu ahal izanen dira, foru lege honen 72. artikuluan aurreikusitako moduan. Kasu horretan, zenbaki honek aipatzen duen 100eko 5eko muga hori kalkulatzeko kontuan hartuko da produktotik heldu den errenta, kenkaria aplikatzen den zerga-aldian lortutakoa.

Erregelamendu bidez ezarri ahalko dira kenkari hau gauzatzeko baldintzak eta prozedurak.”

Zortzi ter. 78. artikuluari 3. idatz-zati berria gehitzen zaio.

“3. Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko sozietate taldeen entitate menperatzaileak beharrik egonen dira, zerga arloko ikuskaritzak egiaztatze prozeduran zehar hala eskatuz gero, egoitza Espainiako lurraldean ez duten eta taldeko kide diren entitateen galera eta irabazien kontuak eta balantzea luzatzera. Era berean, kontabilitateko dokumentazio horri dagozkion frogagiriak eta gainerako aurrekariak erakutsi beharko dituzte, zerga honi dagozkion alderdietan garrantzia izan badezakete.”

Zortzi quater. 3. idatz-zati berria gehitzea 81. artikuluari.

“3. Foru Lege honetako 65.1 artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe, zerga oinarrian edo kuota osoan edozein salbuespen edo kenkariz gozatzeko eskubideaz gozatzeko aplikatzekoa den araudian eskatzen diren baldintzak bete beharko dira.

Salbuespen edo kenkaria aplikatu ondoren, hartaz gozatzeko eskubidea galtzen denean, subjektu pasiboak, beharkizun edo baldintzen ez betetzea gertatzen den zerga-aldiko kuotarekin batera, aplikaturiko salbuespen edo kenkariari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, berandutza korrituz gainera.”

Bederatzi. 88. artikuluari idatz-zati bat gehitzea.

“6. Epai judizial edo administratiboaren ondorioz Zerga honen konturako atxikipenari edo sarrerari loturiko errenta bat ordaindu behar denean, ordaintzaileak ordaindu behar duen zenbateko osoaren gainean eginen du atxikipen edo sarrera hori eta dirua sartu beharko du artikuluan honetan ezarritakoari jarraikiz.”

Hamar. 95. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren azken lerrokadaren testu berria.

“Letra honetan agintzen direnetarako, ez dira balio gisa kontatuko, ez eta enpresa edo lanbide jardueren menpe ez dauden elementu gisa ere, haien erosketa prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino gutxiago bada, baldin eta mozkin horiek enpresari edo profesionari jardueren ondoriozkoak badira; horien muga bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko mozkin haien zenbatekoa izanen da. Dibidenduak, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu direnak barne, ez dira

enpresa edo lanbide jardueretatik etorritako mozkinen parekoak izanen, baldin eta entitate partaidetuak lortutako dirusarreraren 100eko 90, gutxienez, enpresa edo lanbide jardueretatik (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 33. artikuluan azaldu bezala) heldu ez badira.”

Hamaika. 110. artikuluko 1. idatz-zatiaren testu berria.

“1. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta haien entitate kudeatzaileen gaineko urtarrilaren 5eko 1/1999 Legearen bidez arauturiko arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsek enpresen kapitaleko akzio eta partaidetzen eskualdaketatik lortzen duten errentagatik salbuespena gozatzeko dute, Lege hartako 2.1 artikuluan ezarri bezala, enpresetan parte hartzen badute eta bigarren urtearen hasieratik hamabigarren urtera bitarte, hori barne, erosketatik salmentara kontatuta.

Kasu berezietan, azken epe hori luzatu ahalko da hamazazpi urte egin arte. Erregelamendu bidez finkatuko dira luzapen hori baimentzeko kasu, baldintza eta betebeharrak.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kasuan izan ezik, lehenengo urtean eta hamabigarrenaz geroztik ez da salbuespena aplikatuko.”

Hamabi. 111. artikuluko 1. idatz-zatiaren testu berria.

1. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko abenduaren 26ko 46/1984 Legearen bidez arauturiko inbertsio kolektiboko erakundeek, karta-tasa orokorraren menpe daudenak izan ezik, ez dute eskubiderik izanen kuotako kengarrietarako, ez eta, nazioarteko ezarpen bikoitza saihestearren, zerga oinarrian errentak salbuesteko.”

Hamahiru. 131. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letraren testu berria.

“c) Araubidearen galera edo iraungipena gertatzen den zerga-aldian multzoa osatzen duten sozietateek, sozietate-multzoaren kuotaren kenkaria konpentsatzeko eskubidea eskuratuko dute, konpentsazio-eskubide hau sortzen lagundu duten heinean.

Kompentsazioa hauetan egingo da: gelditzen den kenkarirako Foru Lege honetan ezarritako epea osatzeko behar diren zerga-aldietan zehaztuko diren kuota osoetan, kentzeko zenbatekoak zehaztu ziren urte edo urteetatik kontatzen hasita.”

Hamahiru bis. Azken lerrokada bat gehitzen zaio 133.2 artikuluari –hemendik aurrera

133.2.2gn. izanen da, eta orain arte 133.2 zena 133.2.1go. izanen da, a), b) eta c) letrak jasoz.

“2gn. Erosten duten bi entitate edo gehiago daudenean, desegiten den entitateko bazkideei entitate erosleen kapitaleko balore adierazgarriak desegiten den sozietatean zuten proportzio ezberdinean emateko, beharrezkoa izanen da haiek eskuratutako ondareak jarduera-adarrak izatea.”

Hamahiru ter. 137. artikulua. Balore-trukearen testu berria.

“137. artikulua. Balore-trukearen zerga araubidea.

1. Balore-trukea dela eta, agirian geratzen diren errentak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen zerga oinarrian sartuko, betiere ondorengo baldintza hauek betetzen baldin badira:

a) Balore-trukea burutzen duten bazkideek egoitza Espainiako lurraldean, Europako Batasuneko kide den estaturen batean, edota beste edozein estatutan izatea, betiere, azken kasu honetan, jasotako baloreek egoitza Espainian duen entitate baten kapital sozialaren ordezkagarriak direnean.

b) Baloreak eskuratzen dituen entitateak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, EEE/434/90 Zuzentarauaren ezarpen eremuan egoitea.

2. Balore-trukea burutzen duen entitateak jasotako baloreak ekarpena egiten duten bazkideen ondarean zuten balioaren arabera baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraikiz, merkatuko balio nominala txikiagoa denean izan ezik, orduan azken honen arabera baloratuko baitira.

Bazkideek sorturiko errentek Espainiako lurraldean tributatzeko beharrik ez badute, aldean artean hitzarturiko balorea hartuko da, merkatuko balio normalaren mugarekin.

3. Bazkideek jasotako baloreak, zergari dago-kionez, emandakoen balioaren arabera baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera zehaztua, bidezkoa denaren arabera. Balorazio hau igo edota urritu egingo da emandako zein jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoan. Jasotako baloreek emandakoak eskuratzeko datari eutsiko diote.

4. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, inguruabar hori gertatzen den zerga-aldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edo zerga honetako zerga oinarrian sartuko da akzioek edo partaide-

tzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko zenbakian aipatu den balioaren arteko diferentzia, zuzendua berau, hala denean, zergatik kendu ahal izan diren balio-galeren zenbatekoan.

Errenta horri dagokion zerga-zorraren zatia atzeratu ahal izango da, baloreak eskualdatzen diren zerga-aldiari dagokion aitortpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak borren ordainketa bermatzen baldin badu.

5. Erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako lurralde edo lurraldeetan helbideratutako edo finkatutako entitateek esku hartzen duten eragiketetatik lortutako errentak, edota horien bidez lortutakoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga oinarrian sartuko dira.

6. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritako beharkizunak betetzen ez dituzten baloreak trukatzeko eragiketetan ezin izanen da aplikatu kapitulu honetan jasotako araubidea.”

Hamahiru quater. 139. artikuluko 3. zenbakiko a) letrako a') azpiletran bigarren lerrokada gehitzeko zuzenketa.

“Halaber, bidezkoa izanen da aipatu diferentziaren egozketa edo kenkaria aplikatzea subjektu pasiboak haren balioidea den kopuru batengatik atzerrian tributatu duela frogatzen denean –betiere zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arau orokorrak aplikatuta, partaidetzaren ondoz ondoko jabe izan diren pertsona edo entitateek eskualdaketa lortu duten onuraren kontzeptuan, baldin eta egoitza paradisu fiskal gisa arauz sailkaturiko herrialde edo lurralde batean ez badute.”

Hamalau. 142. artikulua. Balore-trukearen testu berria.

“142. artikulua. Finkagune iraunkorretako galerrak.

Finkagune iraunkor bat eskualdatzen denean, eta Foru Lege honetako 134. artikuluko 1. zenbakiko c) letran ezarritako araubidea aplikatzen denean, Espainiako lurraldean egoitza duten entitate eskualdatzaileen zerga oinarria gehitu egingo da, finkagune iraunkorrak aurreko hamar zerga-aldietan egotzitako mozkinen gaineko galeren soberakinaren zenbatekoan.”

Hamalau bis. 145 artikulua. Balore-trukearen testu berria.

145. artikulua. Zergapetze bikoitza eragozteko arauak.

1. Foru Lege honetako 136., 137.2, eta 144. artikuluetan ezarritako balorazio erregelak aplika-

tzeagatik sor litekeen zergapetze bikoitza eragozteko asmoz, ondorengo arauak aplikatuko dira:

a) Ekarrirako ondasunen errenta egozgarrien pentzutan banatutako mozkinen kenkarirako eskubidea ematen dute, 59.4 artikuluan aipatu den dibidenduen barne-zergapetze bikoitza eragozteko asmoz, bazkidearen partaidetzaren portzentaia eta haren antzinasuna edozein izanik ere. Irizpide bera aplikatuko zaio kenkariari, Foru Lege honetako 59.5 artikulua partaidetzen eskualdaketa dela-eta aipatzen dituen plusbalioen barne-zergapetze bikoitza saihesteko.

b) Ekarrirako ondasunen errenta egozgarrien pentzutan banatutako mozkinen salbuesteko edo kenkarirako eskubidea emango dute, dibidenduen nazioarteko zergapetzea saihesteko, bazkidearen partaidetzaren portzentaia edozein izanik ere.

2. Entitate eskuratzailerak kontabilizatzeko erabilitako eragatik, posible izan ez balitz zergapetze bikoitza saihestu, aurreko zenbakian ezarritako arauak ezartzeagatik, entitate horrek, iraungitzen den unean, Foru Lege honetako 136, 137.2, eta 144. artikuluetan ezarritako balorazio erregelak aplikatzeagatik egingo zituen kontrako zeinuko doikuntzak egingo ditu. Entitate eskuratzailerak, iraungipen unea baino lehen, aipatu doikuntzak egin ahal izanen ditu kontrako bidean, baldin eta frogatzen bada bazkideek beren partaidetza eskualdatu dutela, betiere eskualdaketa hori dela-eta haien zerga oinarrian sartu zenbatekoaren mugarekin.”

Hamabost. 146. artikulua testu berria.

“146. artikulua. Araubide fiskala ezartzea.

1. Kapitulu bonetan ezarritako araubidea subjektu pasiboak hala erabakitzen duenetan ezarriko da. Hori aukeratzen bada, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio eragiketari dagokion eskritura inskribatu baino lehen.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko baldin eta egindako eragiketek helburu nagusi gisa, edo helburu nagusietako baten gisa, iruzur edo itzurpen fiskala badute. Eragiketaren helburu nagusia iruzur edo itzurpen fiskala dela joko da arrazoi ekonomiko baliozkoak –esate baterako, eragiketan parte hartzen duten entitateen jardueraren berregituraketa edo arrazionalizazioa– erabiltzen ez direnean, hau da, eragiketaren helburua abantaila fiskalen bat lortzea denean.

Interesdunek baldintza honen aplikazioari buruzko kontsultak egin ahal izanen dituzte arlo horri buruzko arau orokorretan ezarritako terminoetan.”

Hamasei. X. tituluko X. kapituluko 147.etik 150.era bitarteko artikuluen testu berria.

X. KAPITULUA Atzerriko baloreak dituzten entitateen araubidea

147. artikulua. Balore atzeritarren edukitzako entitateak.

1. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakunde berezko funtsen ordezkagarri diren baloreen kudeaketa lehendabiziko helburu sozialtzat duten entitateek, beharrezko giza baliabide eta materialen antolaketaren bidez, kapitulu honetan ezarritako araubideari heldu ahal izango diote.

Balore atzeritarren edukitzako entitateen kapitaleko balore edo partaidetza ordezkagarriak izendunak izanen dira. Sozietate gardenak ezin izanen dira Kapitulu honetan ezarritako araubidez baliatu.

2. Balore atzeritarren edukitzako entitateen araubidea aukeratuz gero, horren berri eman beharko zaio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari. Araubidea jakinarazpen horren ondoren bukatzen den zerga-alditik aurrera aplikatuko da bai eta ondoko zerga-aldietan ere, baldin eta araubideari uko egitea Ekonomi eta Ogasun Departamentuari jakinarazi aurretik bukatzen badira.

Erregelamendu bidez komunikazioaren beharrezkoak eta harekin batera eman beharreko informazioaren edukia ezarri ahal izanen dira.

148. artikulua. Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duten entitateen berezko funtsen ordezkagarri diren balore edukizetik eratorritako errentak.

Egoitza Espainian ez duten entitateen mozkinen dibidenduak edo partaidetzak, hala nola dagokion partaidetzaren eskualdaketatik etorritako errenta positiboak, nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko salbuetsirik egon ahal izanen dira, Foru Lege honetako 62. artikuluan aurreikusitako baldintza eta betebeharrekin.

Salbuespena aplikatzeko, gutxieneko partaidetzaren betebeharra, 62. artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatzen dena, betetzat hartuko da partaidetza eskuratzearen balioak 6.000.000 euro (998.316.000 pezeta) baino handiagoa denean. Balore atzeritarren edukitzako entitateak zeharka parte hartzen badu bigarren mailatik edo hurrengo mailetatik aurrera, Foru Lege honetako 62. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako b') azpiletran ezarritakoa aplikatzeko, 100eko 5eko gutxieneko portzentaia errespetatu beharko du.

149. artikulua. Mozkinen banaketa. Partaidezaren eskualdaketa.

1. Aurreko artikuluan aipaturiko errenta salbuesien ondorioz banatzen diren mozkinekin honela jokatu da:

a) Hartzailea zerga honi loturik dagoen entitatea denean, jasotzen diren mozkinak dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emanen dute, Foru Lege honetako 59. artikuluan ezarritako moduan.

b) Mozkinen hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko subjektu pasiboa denean, banatzen den mozkinak ez du dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emanen. Halere, zilegi izanen da nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. artikuluan ezarri bezala, hartutako mozkinak eratzeko balio izan duten errenta salbuesien gainean baloreak dituen entitateak atzerrian ordaindutako zergeri buruz.

c) Espainiako lurraldean era egonkorrean kokatuta dagoen establezimenduen kasuan, a) letran ezarritakoa aplikatuko da. Igorpen-primaren banaketari letra honetan mozkinen banaketarako ezarritako tratamendu bera emanen zaio.

Ondorio horietarako, ulertuko da banatutako lehen mozkinak salbuesitako errentetatik datorrela.

2. Baloreen edukitzako entitateko partaidetzaren eskualdaketatik edo bazkide bat bereizi edo entitate baten likidazioa egitean lorturiko errentetan, barneko zergapetze bikoitzarengatik ezarritako kenkaria aplikatu ahal izanen da, baldin eta hartzailea zerga hau ordaindu beharreko entitate bat edo Espainiako lurraldean era iraunkorrean ezarritako establezimendu bat denean, betiere Foru Lege honetako 59. artikuluko 5. zenbakian balore atzeritarren edukitzako entitate batean parte hartzeko baldintza betetzen badu. Kasu berean, Foru Lege honetako 62. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu ahal izanen zaio lortutako errentaren zati bati, hain zuzen ere atzerriko errenten atxikipean direla-eta aipatu 62. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen balore atzeritarren edukitzako entitateari lotuta izan eta egoiliar ez diren entitateetako partaidetzei egozten ahal zaizkion diferentziekin bat etortzen denari.

3. Baloreen edukitzako entitateak bere oroitidazkian aipatu egin beharko ditu salbuesitako errenten zenbatekoa eta atzerrian haiek direla-eta

ordaindutako zergak; halaber, bere bazkideei behar den informazioa eman beharko die aurreko idatz-zatietan ezarritakoa bete ahal izan dezaten.

150. artikulua. Araubide honen aplikazioa.

1. Kapitulu honetan aurreikusten den araubideaz baliatu ahal izateko beharrezkoa izango da bertan ezartzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzea, eta horixe frogatu beharko du subjektu pasiboak tributu administrazioak hala eskatuta.

2. Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duten entitateen berezko funtsen ordezkagarri diren baloreen ekarpen ez diruzkoak Foru Lege honetako 144.1 artikulua ezartzen duen araubideaz baliatuko dira, baloreak dituen entitateen ekarpen horiek ematen duten partaidetza-portzentajea edozein delarik.”

Hamazazpi. 167.1.B).b) artikuluari beste lerrokada bat gehitzea.

“Aurreko a) eta b) letretan agintzen denerako, enpresen sozietate sustatzaileek beren aktiboaren 100eko 75 baino gehiago izan beharko dute Foru Lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren sozietate akzio edo partaidetzen harpidetzan edo esku-raketan inbertitua.”

Hemezortzi. 167.7 artikulua testu berria.

“7. Dibidenduek eta, oro har, enpresen sozietate sustatzaileek bultzatutako sozietateetatik jasotako mozkinetako partaidetzek, zerbait izatekotan, Foru Lege honetako 59. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako kenkaria izanen dute, edozein direlarik ere partaidetzaren ehunekoa eta akzioen edo partaidetzen edukitze aldia.”

Hemeretzi. Laugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiaren testu berria.

“1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarritik kanpo geratuko dira hurrengo ondorioz agerian geratzen diren errenta positiboak:

a) Europako Batasuneko nekazaritza politikaren laguntzok jasotzearen ondorioz:

a') Mahastizaintzari behin betiko uzteagatikoa.

b') Landaturiko sagarrondo, mertxikondo eta nektarinondoak errotik ateratzeagatikoa.

c') Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatikoa

d') Erregelamenduz ezartzen direnak.

b) Errepide bidezko garraioari uzteko laguntzak, horiek emateko arauetan ezarritako baldin-

tzak betetzen dituzten garraiolariak ordaindutakoak, jasotzearen ondorioz.

c) Enpresari jardueretara atxikitako ondare elementuak sutean, uholdean, hondoratzean edo osasun arloko arazoetan galtzea ordaintzeko xede duten laguntza publikoak jasotzearen ondorioz.”

4. artikulua. Ondorioak 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zerga-aldietan izanik, aldaketa batzuk sartu dira Kooperatiben Zerga-araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeko ondoren azaltzen diren artikulua hauetan:

Bat. Lerrokada bat gehitu zaio 5. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrari.

“Dena den, nekazaritzako kooperatibek zilegi izanen dute bazkide ez diren hirugarrenei B gasolia saltzea babes berezikoak izateari utzi gabe.”

Bi. 5. artikulua 3. idatz-zatiaren testu berria.

“1. zenbakiak aipatzen duen esparru geografikoan kokatutako bazkide bakoitzaren ondasunei dagozkien Landalur Kontribuzioaren eta Abeltzaintzakoaren edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastro-balioak ez daitezela 15.000.000 pezeta baino handiagoak izan.”

Hiru. 6. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da.

“4. Kooperatibako ondasunei dagokien Landalur Kontribuzioaren eta Abeltzaintzakoaren edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastro-balioen kopuru osoa, bazkide kopuruaz, bai langileen, bai ustiatzeko eskubideen lagapen-emaitzenaz, zatitu ondoren aterako den kopuruaz 15.000.000 pezeta baino handiagoa ez izatea.”

Lau. 9. artikulua 10. idatz-zatia aldatu da.

“10. Bazkide ez diren hirugarrenekin eragiketa kooperatibizatuak egitea, legeak onartutako kasuetatik kanpo, eta eragiketa horien kontabilizazio bereiziari eta horiek egitean erdietsitako emaitzak Derrigorrezko Erreserba Funtsan sartzeari buruzko arauak ez betetzea.

Inolako kooperatibak ezin izanen du bazkide ez diren hirugarrenekin kooperatibaren eragiketabolumen osoaren 100eko 50 baino eragiketabolumen handiagoa egin, zerga aldetik babestutako kooperatibaren izaera galdu gabe. Arau hori ez zaie nekazaritzako kooperatibei aplikatuko, bazkide ez diren hirugarrenei B gasolia saltzeko eragiketegi dagokienez.

Aurreko lerrokadan ezarritako muga hori aplikatzeko, bazkideekin egindako eragiketekin partekatuko dira kreditu kooperatibetatik, eta funts publikoetan eta enpresa publikoek jaulkitako balo-

reetan egindako inbertsioetatik ateratako kreditu-sailek erdietsi dirusarrerak.”

5. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Ondoko aldaketa hauek egin zaizkio:

Bat. 3.1.B) artikulua.

“B) Ondasun-eskubide, mailegu, fiantza, errentamendu, pentsio eta administrazio emakiden eraketa, azkeneko hauek trenbide azpiegiturak zein portu eta aireportuetako eraikinak edo instalazioak erabiltzeko eskubidea lagatzeko direnean ezik.

Eskubideen eraketatzat haien titularrarentzat tributuen exigentziarako oinarria izanen den ondare gehikuntza dakarren haien edukinaren geroko zabalkuntza likidatuko da.”

Bi. 8. artikuluko 1. zenbakiari b) letra berria gehitu zaio eta, beraz, hemendik aurrera, gaurko b) eta c) letrak c) eta d) letrak izanen dira, hurrenez hurren.

“b) Aurreko letran ezarritakoaren salbuespen gisara, etxebizitzaren eskualdaketak, haietatik bereizi ezin diren eranskinak barne, ehuneko 5eko tributua izanen du, ondoko baldintza hauek betetzen direnean:

1go. Eskuratzaila beste etxebizitza baten jabe ez izatea eskuratu beharreko etxea dagoen udalerrian.

2gn. Etxebizitza eskuratzailaren ohiko egoitza izatea.

3gn. Eskuratzaila hiru kide baino gehiagoko famili unitate batekoa izatea.

Tasa murriztua hogeita hamar milioi pezetako zerga oinarri gehienezkoari aplikatuko zaio. Zerga oinarriak kopuru hori gaintzen duenean, ehuneko 5eko tasa soilik hogeita hamar milioi pezetako kopuruari aplikatuko zaio, eta hortik goitikoari higiezinaren eskualdaketetarako ezarritako tasa orokorra aplikatuko zaio.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzatzat eta famili unitatezkat hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauan finkatu direnak.

Letra honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko aurkeztu beharreko agiriak erregelamendu bidez finkatuko dira.”

Hiru. Testu Bategineko 35.I.B) artikuluari idatz-zati bat (19.a) gehitu zaio.

“19. Edozein motako hipoteken ezeztapena dokumentatzen duten notario eskrituren lehenbiziko kopiak, notario agiriak kargatzen dituen “Egintza Juridiko Dokumentatuen” modalitatearen karga-tasa gradualari dagokionez.”

Lau. 36.2 artikuluari beste lerrokada bat gehitu zaio (bigarrena) eta bigarrena zena hirugarrena da orain, testu berriarekin.

“Balioen egiaztapenaren jakinarazpena Administrazioak, beharrezkoa bada, egiten duen likidazioarekin batera egiten da.

Egiaztapenean ateratzen diren balioak interesatuek aitortutakoak baino handiagoak badira, horiek zilegi izanen dute balio horiek inpugnatzea, balio berriak kontuan hartuko dituzten likidazioen erreklamazio epeen barruan. Balio berriek zergen aldetik eragina izan badezakete eskualdatzaileen gan, banan-banan jakinaraziko zaie horiek epe berean inpugnatu edo peritu-tasazio kontrajarriaren bidez zuzenketa eskatu ahal izateko eta, erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo hein batean onetsiz gero, Ondare Eskuldaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako subjektu pasiboak ere baliatu ahalko dira ematen den ebazpenaz.”

Bost. 36.5 artikulua.

“5. Balioen egiaztapenaren emaitzakoa zuzentzeko, interesatuek peritu-tasazio kontrajarria eragiten ahal izanen dute, arauz ezartzen den bezala eta ezartzen diren epeetan.

Baldin eta peritu-tasazio kontrajarria eskualdatzaileak eragiten badu artikulua honetako 2. zenbakikoan xedatutakoa dela bide, eskabide-orria egiaztapenaren jakinarazpenaren ondorengo 15 egunetan zehar aurkeztu beharko da.

Peritu-tasazio kontrajarriaren eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du egindako likidazioen dirusarrerak eta haien aurka erreklamatzeko epeak etetea.”

Sei. 41.1 artikuaren lehenbiziko lerrokadaren testu berria.

“Epai edo administrazio bidez, ebazpen irmo bidez, egintza edo kontratu bat deuseztatu, hutsaldu edo suntsitu dela adierazten edo aintzatesten denean, zergadunak eskubidea izanen du Zergaren zioz ordaindu duen kuota itzul dakion, irabazirik sortu ez badio eta itzulketa ebazpena irmo geratzen denetik lau urte igaro baino lehen eskatzen badu.”

Aurreko idatz-zatiko hirugarren zenbakian azaldutako aldaketa aplikatuko zaie 2001eko urtariraren 1etik aurrera sortzen diren Zergaren zergagaiei, eta laugarren zennbakikoa, ordea, Administrazioak egun horretatik aurrera egiten dituen likidazioei.

6. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga.

1. Oinordetzen, Ondare Eskuldaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoak diren eta Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10eko erabakiaren bidez onetsi zituen Arauetako honako artikulua hauek honela idatzita geratuko dira:

Bat. 34. artikulua testu berria.

34. artikulua.

Honako hauek izanen dute zerga ordaintzearen erantzukizun subsidiarioa, salbu eta, arau orokorre jarraikiz, erantzukizun solidarioa badute:

a) Gordailu, berme edo kontu korronteen mortis causa eskuldaketetan, finantza artekariak eta gordailaturiko eskudiru edo baloreak entregatu edo eraturiko bermeak itzuli dituzten gainerako entitate edo pertsonak.

Hemen ezartzen denerako, ez da joko gordailaturiko eskudiru edo baloreen entregatzezat ez eta berme-itzulketazat ere banku-txekeak libratzea gordailuen, bermeen edo saldu behar adinako baloreen salmentaren etekinen kontura, baldin eta horrek xede bakartzat badu “mortis causa” eskuldaketari karga gisa ezartzen zaion Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, txekoa luzatzen bada Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin.

b) Onuradun gisa jaraunseak edo kontratuetan izendaturikoak gertatzen direnei entregaturiko kopuruei dagokienez, entregatze horiek egiten dituzten Aseguru Entitateek.

Hemen ezartzen denerako, ez da aseguru-kontratuetakoa onuradunei eginiko kopuru-entregatzezat joko prestazio horren konturako ordainketa, baldin eta ordainketa horren helburu bakarra bada prestazio horren eskuraketari ezarritako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, ordainketa hori egiten bada onuradunei entregatuz Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin luzaturiko banku-txeke bat.

Bi. 40.1 artikuluko c) letraren testu berria.

“c) Hil aurreko lau urteetan zehar kausatzaileak eskualdaturiko ondasun eta eskubideak, baldin

eta horien edo eskuratzailereen beste batzuen gaineko gozamenari edo beste edozein biziarteko eskubideri eutsi badio, salbu eta biziarteko errentako aseguruak direnean, legez eragiketa-mota hori egiten diharduten entitateekin kontratatua.

Hiru. 291. artikulua. Testu berria.

“291. artikulua. Zergadunek uste badute esku-bidea daukatela Arau hauek aipatzen dituzten kontzeptu fiskalengatik ordainduriko kopuruak itzul dakizkien, dela egitatezko akats baten dela ordainketa bi aldiz egitearen ondorioz, edo itzulketarako eskubidea ematen duten baldintza edo betekizunetakoren bat betetzeagatik, Diputazioari hala eskatu ahalko diote, jarraian adierazten den moduan zenbaturiko lau urteko epean:

1go. Zorrek ordaintzeko esleipenaren kasuetan, helburu horrekin esleituriko ondasun higiezin edo eskubide errealeen salmenta, lagapen edo esleipenaren eskriturak duen dataren hurrengotik hasita, baldin eta, betiere, aipaturiko eskritura hori otorgatzen bada 111. artikuluko b) letrak adierazitako epearen barnean.

2gn. Baldintza suntsitzaileak betetzearen ondoriozko itzulketetan edo egintza nahiz kontratuen amaiazpen edo deuseztasuna deklaratzeko duten epai edo administrazio ebazpenen bidezkoetan, baldintza betetzen den edo epai nahiz ebazpena irmo bilakatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

3gn. Akats material huts baten edo egitezko huts baten ondoriozko itzulketetan –esate baterako, oker aritmetiko bat gertatu delako likidazioa egiterakoan edo likidaturiko kontzeptuari dagokion tipoa oker ezarri delako– eta kopuru bera likidazio-bulego batean baino gehiagotan kopuru bera bi aldiz ordaintzeagatik gertatutakoetan, behar ez zen dirusarrera gertatu zen egunaren biharamunetik aurrera.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55.1.7gn. artikuluan ezarritakoaren ondoriozko ezkontideen arteko eskualdaketenatik ez da Ondare Eskualdaketen eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu beharko, aipatu xedapenean ezarritako mugatik behera.

3. Aurreko 1. idatz-zatiko bigarren zenbakian jasotako aldaketak 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergagaiei aplikatuko zaizkie.

7. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1. Ondorioak 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren

tarifak, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. eranskinean ageri direnak, aldatu dira, ondoren azaldu bezala:

1go. 1. sekzioko 854 multzoaren aldaketa.

“854 multzoa. Gidaririk gabeko ibilgailuen alojera.

854.1 epigrafea. Gidaririk gabeko ibilgailuen alojera.

Ibilgailuko:

Udalaren gutxieneko kuota: 1.191 pezeta.

Lurralde kuota: 4.140 pezeta.

Kuota nazionala: 5.175 pezeta.

Oharra: multzo horren barnean ez da gidaririk gabeko ibilgailuen “renting” moduko alojera.

854.2 epigrafea. Gidaririk gabeko ibilgailuen “renting” moduko alojera.

Ibilgailuko:

Udalaren gutxieneko kuota: 1.191 pezeta.

Lurralde kuota: 4.140 pezeta.

Kuota nazionala: 5.175 pezeta.”

2gn. 2. sekzioan 45 taldea sortu da.

“45. taldea. Geodesia eta Mapagintzako ingeniariak.

451 kuota. Geodesia eta Mapagintzako ingeniariak.

Kuota: 21.528 pezeta.”

3gn. 2. sekzioko 71 taldearen aldaketa.

711 taldea. Aseguru aktuarioak.

Kuota: 39.330 pezeta.

712 multzoa. Aseguruetako agente eta artekariak.

Kuota: 24.840 pezeta.”

4gn. 2. sekzioko 762 multzoaren aldaketa.

“762 multzoa. Informatikako doktore, lizentziatu eta ingeniariak.

Kuota: 25.461 pezeta.”

2. Aurreko idatz-zatian aipaturiko aldaketen ondorioz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruz duten egoera aldatzen baldin bazaie, subjektu pasiboek dagokien aitortpena aurkeztu beharko dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskala kudeatzeko arauak ematen dituen azaroaren 11ko 614/1996 Foru

Dekretuko 5, 6 edo 8. artikuluetan, kasuen arabera, ezarritako moduan.”

8. artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasu-naren Erregistro Fiskala arautzen duen martxoaren 10eko 3/1995 Foru Legeko 28. artikulua aldatu da, ondoren azaldu bezala:

“28. artikulua. Lurzati-zedulak aurkeztea.

Koordinaziopeko udalerrietako ondasun higiezin notario tituluak formalizatzeko, haien titularrak dagozkien zedulak, indarrean daudenak betiere, aurkeztu beharko dituzte. Horrela egin ezean, ohartaraziko zaie aipatu betebehari eta tituluan bertan zehazki idatziko da halaxe egin behar dela.

Ohartarazpen eta idazketa horiek ukatu gabe, lurzati-zedula aurkeztu beharra ez betetzea, zerga arloko arau-hauste arintzat hartuko da eta 1.000 pezetatik 150.000 pezetara bitarteko isuna paratuko.

Baldintza hori betetzen ez bada, interesatua salbuetsirik egonen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1999 Foru Legeko 145. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkiztetik, betiere egintza edo negozioa baldin bada ondasun higiezin jabariaren eskualdaketa eta ez besterik, eta eskritura publikoan formalizatzen bada edo Jabetza Erregistroan inskripzioa egiteko eskaera egiten bada delako egintza edo negozioa egin eta 2 hilabeteko epean. Betebehari hori bete ezean, edo goitibehera horiek gertatzen ez direnean, notarioek eta Jabetzaren erregistratzaileek berariaz ohartaraziko diete interesatuei dagokion jabariaren eskualdaketa deklaratu beharrak bere horretan irauten duela.”

9. artikulua. Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legeko artikuluko batzuen testu aldatu da, honela:

Bat. 15. artikulua. Maileguak.

“15. artikulua. Maileguak.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren 1999ko apirilaren 26ko Testu Bateginaren 22. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen "Egintza Juridiko Dokumentatuak" kontzeptutik salbuetsiak egonen dira honako hauek: Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako mailegu hipotekarioen eratzea, aldatzea edo kitatzea dokumentatzen duten eskritura publikoan lehenbiziko kopiak, betiere mailegu horiek ematen baldin bazaizkie lehentasunezko ustiategiaren titularrei hobekuntza planak egiteko, lehentasunezko ustiategiak ez izan arren mailegu

horien bidez finantzaturiko eskurapenei esker izaera hori lortzen duten ustiategiaren titularrei, eta nekazari gazteei nekazaritzako ustiategi bat lehen aldiz instalatzeko aukera izan dezaten.”

Bi. 16. artikulua. Ustiategiaren testu berria.

“16. artikulua. Ustiategiaren testu berria.

1. Nekazaritzako ustiategi oso baten erabateko jabetza edo biziarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada lehentasunezkoa den edo eskurapenaren ondorioz izaera hori lortzen duen beste ustiategi bateko titularraren alde edo halako titular bat izanik egilea, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuetsirik egonen da ustiategiaren edo hori osatzen duten elementuen eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta, eskualdatzearen ondorioz, eskuratzailearen ustiategiak duen lehentasunezko izaera aldatzen ez bada.

Ustiategiaren eskualdaketa eskritura publiko bidez egin behar da.

Idatz-zati honetako lehen lerrokadana aipatu ondorioetarako, nekazaritzako ustiategi osoaren eskualdaketa egiten dela ulertuko da, baita etxebizitza kanpoan uzten denean ere.

2. Salbuespena gauzatu ahal izateko, eskuratzearen eskritura publikoan eta Jabetza Erregistroan, baldin eta eskualdatutako finkak erregistro horretan inskribatuta bazeuden, azaldu beharko da: eskuraturiko finkak hurrengo bost urteko epean besterendu, errentan eman edo lagatzen badira, aldez aurretik honako justifikazioa egin beharko dela: dagokion zerga ordaindu izanarena, edo egindako salbuespenaren ondorioz ordaindu gabe gelditutako horren zatiarena, bai eta berandutze interesena ere, salbuespen izanik ezinbesteko kasuak, heriotza, elbarritasuna edo titularrak jardura uztea jubilatutako delako bai adinarengatik, bai arauz ezarrita dagoen beste edozein arrazoiengatik.”

Hiru. 17. artikulua. Ustiategiaren testu berria.

“17. artikulua. Muga bakar baten barneko ustiategiaren osatzeko eskualdaketa.

1. Landa finken erabateko jabetza edo biziarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, baldin eta hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat eratzeko asmoz muga bakar baten barnean horretarako beharrezkoa den azalera biltzeko, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuetsia egonen da

eskualdatzeen edo eskuratzeen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta agiri publikoan azaltzen bada egindakoaren ondorioz geratzen den finka ezin izanen dela zatitu bost urteko epean, aurreko idatz-zatian ezarritako kasuetan izan ezik.

2. Eskualdaketaren edo eskuratzearen gaineko zergari dagokion zerga oinarrian 100eko 50eko murrizketa aplikatuko da honako kasuan: nekazaritzako ustiategiaren titularrek lurren eskualdatzea edo eskuratzea egiten dutenean muga bakar baten barnean biltzeko ustiategi bateko azalaren 100eko 50a gutxienez, betiere horri dagokion lan-unitatearen errenta Foru Lege honek ezarritako muga barnean baldin badago, hori guztia, lehentasunezko ustiategietarako zerga onurak emateko. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, arestiko idatz-zatian zatiezintasunaren eta eskuratzeari buruzko agiri publikoaren gainean ezarritako baldintzak bete beharko dira.”

Lau. 18. artikulua. testu berria.

“18. artikulua. Ustiategi eta landa finketako zati batzuen eskualdaketa.

1. Landa finka baten edo nekazaritzako ustiategi bateko zati baten erabateko jabetza edo biziarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada eskurapenaren ondorioz lehentasun izaera galtzen ez duen edo lortzen duen lehentasunezko ustiategi bateko titularraren alde, orduan, salbuespena aplikatuko da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergan.

2. Onura aplikatu ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko bidez egin beharko da, eta 16. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da.

3. Baldin eta 1. idatz-zatiak aipatzen dituen eskualdaketaren edo eskuratzearen bidez, Nekazaritza Politika Amankomunetik heldu diren eskubideak edo kuotak ere batera eskualdatzen edo eskuratzen badira, artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen diren onurak aplikatuko dira.”

Bost. 20. artikulua. testu berria.

“20. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "kostubidezko ondare eskualdaketak" kontzeptuan salbuetsirik egonen dira honakoak: jabetza espedienteak, ezaguntasun aktak eta lehentasunezko ustiategi batean integraturiko finkak edo halako ustiategi bat osatu ahal izateko integratzen direnak Jabetza Erregistroan inmatrikulatzeko edo etendako erre-

gistro-traktuari berrekiteko erabiltzen den beste edozein prozedura.”

Sei. 21. artikulua. testu berria.

“21. artikulua. Lehentasunezko ustiategi elkar-tuendako zerga onura bereziak.

1. Amortizazio askatasuna izanen dute nekazaritzako jarduerari loturiko higiezin material eta inmaterialen elementuek, baldin eta lehentasunezko ustiategi izaera lortzen den egunaren ondoko lehen bost urteetan eskuratuak badira.

2. Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arabera bereziki babesturiko nekazaritza kooperatiba gisa eratuta dauden lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren barnean kuota osoaren hoberia, Zerga horren 28.2 artikuluan aurreikusia, 100eko 80koa izanen da.

3. Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak izanik Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen duten lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren barnean kuota osoaren hoberia 100eko 50ekoa izanen da.”

Zazpi. 22. artikulua. testu berria.

“22. artikulua. Nekazari gazteendako zerga onura bereziak.

Foru Lege honen 15, 16 eta 18. artikuluetan aurreikusitako zerga onurez gain, nekazari gazteek beste hauek ere izanen dituzte:

1. Nekazaritzako ustiategi baten edo horren zati baten zein landa finka baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat lehen aldiz instalatzen duen nekazari gazte baten alde, orduan, salbuetsia egonen da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduerako etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoa erabiliz zehazten duten nekazari gazteek, beren nekazaritza jarduerari dagokiona 100eko 50ean murriztu ahalko dute, lehentasunezko ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatu ondoko bost urteetan itxitako zerga-aldietan, baldin eta ustiategia hobetzeko plan bat egin izana egiaztatzen badute. Arestian aipatu instalazioa Foru Lege honen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egina izanen da.

Aurreko lerrokadan aipaturiko etekin garbia, zenbatespen objektiboaren araubideari buruzko arauak aplikatzearen ondoriozkoa izanen da soilik.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Zerga araubidea baloreen maillegu jakin batzuen Sozietateen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Erregelamendu bidez ezarriko den bezala, baloreen mailleguko eragiketek ez dute aldaketarik sortuko maillegu-emaiaren ondarean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan, baldin eta Baloreen Merkaturari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 36.7 artikuluan eta hori garatzen duten arauetan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Bigarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikulua aipatzen duen monetaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

2001ean hasten diren zerga-aldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikulua aipatzen duen monetaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak ondoko hauek izanen dira:

Ondare elementua eskuratu edo ekoiztu zuen urtea	Koefizienteak
1983 eta aurrekoak	2,051
1984	1,850
1985	1,724
1986	1,639
1987	1,589
1988	1,523
1989	1,448
1990	1,388
1991	1,338
1992	1,292
1993	1,237
1994	1,187
1995	1,126
1996	1,071
1997	1,046
1998	1,033
1999	1,026
2000	1,021
2001	1,000

Hirugarrena. Konturako atxikipenak edo diru-sarrerak jaulkipen primaren banaketan edo ekarpenen itzulketarekin egindako kapital-murrizketan.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, akzioen edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketatik edo ekarpenen itzulketarekin egindako kapital-murrizketatik heldu den etekina ez da

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipen edo diru-sarreraren pean egonen. Kasu horietan konturako atxikipen edo diru-sarrerak egiteko beharra ezarri ahalko da errege-lamendu bidez.

Laugarrena. zerga oinarria murriztea Naturguneetan edo Komunitatearen Intereseko Lekuetan dauden lursailen eskualdaketetan.

Jabetza osoko nahiz jabetza soileko "mortis causa" eskualdaketetan eta "inter vivos" dohaintzetan, baldin eta babespeko naturgunearen deklarazioa duten lursaileri edo Europako "Natura 2000" sare ekologikoko Interes Komunitarioko lekua izateko proposatutako lursaileri buruzkoak badira, 100eko 95eko murrizketa eginen da Oinordetzen gaineko Zergaren zergagaian, titulartasun pribatua duten lursailetarako.

Eskualdatzaileak beretako usufrukturik gorde badu, hura iraungitzeagatik ere murrizketa bera eginen da.

Bosgarrena. Berandutzako interesa.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zerga zorren berandutzako interes-tasa ehuneko 6,50ekoa da urtean.

BERRIA. "Sasoikako langileei aterpea emateko higiezinak erosi edo zaharberritzeko inbertsio-engatikoz pizgarri fiskala."

Pertsona Fisikoen gaineko Errentariari buruzko Zergako subjektu pasiboek eskubidea izanen dute kuota osoan sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo zaharberritzeko zerga-aldian ordaindutako zenbatekoen 100eko 20ko kenkaria aplikatzeko. Pizgarri hori aplikatuko da baldin eta higiezinak Foru Komunitateak pertsonen lojamendurako eskatzen dituen bizigarritasun baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ziurtagiri bat emanen du.

Subjektu pasiboek kenkaria aplikatzeko eskubidea izanen dute hain zuzen ere higiezina erosteko edo zaharberritzeko kopuruak ordaintzen dituzten zerga-aldian. Hala eta guztiz ere, kenkari horren aplikazioarekin lau zati berdin egin eta sortzapena gertatu zen zerga-aldian eta ondoko hiruetan zati ezberdinetan aplikatuko da. Kenkariaren aplikazioa, lau zati berdinetan, bidezkoa izanen da soilik aipatu higiezinetan sasoikako langileei aterpea ematen zaien zerga-aldietan. Horretarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak urtero ziurtagiri batzuk emanen ditu erosi edo zaharberritutako higiezi-

tan sasoikako langileei benetan aterpe eman zaienean.”

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Nazioarteko ezarpen bikoitzagatik egin gabe dauden kenkariak.

Nazioarteko ezarpen bikoitzagatik egin beharreko kenkariak, Foru Lege honek indarra hartu arte Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legeko 60 bis eta 62. artikuluetan aurreikusirik egonik, egin gabe baldin badaude 2000ko urtarrilaren 1etik hasitako zerga-aldiak bukatzean, hurrengo zerga-aldietan egingen dira aipatu artikuluetan ezarritako baldintza eta betebeharrei jarraikiz.

Bigarrena. Atzerriko baloreak dituzten entitateak araubide berrira egokitzea.

1. Foru Lege honek indarra hartzen duenean atzerriko baloreak dituzten entitateen araubidea emana duten entitateek zilegi izanen dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko X. kapituluko araubidea aplikatzeari uko egitea, Foru Lege honetan ezarritakoari jarraikiz, eta horren berri eman beharko diote Ekonomi eta Ogasun Departamentuari, indarra hartu ondoren amaitzen den lehenbiziko zerga-aldia bukatu baino lehen.

2. Foru Lege honek indarra hartzen duenean atzerriko baloreak dituzten entitateen araubidea emana duten entitateen kapitaleko partaidetzen balio ordezkagarriak balio izendun bihurtzea, araubide berria aplikatzen den lehenbiziko zerga-aldian egingen da.

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honek xedatzen duenaren aurkako maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetuko dira; bereziki, honako arau hauek:

– Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategineko 36. artikuluko 4. idatz-zatia. Testu hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren eta hori garatzen duten arauen bidez onetsi zen.

– Zerga-aldarazpenei buruzko urriaren 20ko 12/1992 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria.

– Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko erabakiaz onetsi ziren Oinordetzen, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauetako 33. artikulua.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru Lege honek 2001eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Aurreko lerrokadan xedatua gora-behera, Foru Lege honetako 1. artikuluko 24. zenbakiak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izanen du; 1 eta 2. artikuluetan xedatutakoak ondorioak izanen ditu 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, 1. artikuluko 1, 4, 6, 10 eta 23 zenbakietan ezarritakoa izan ezik.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--